



# hariak

2018ko urria

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesa izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz II. Unibertsitatean Hezkuntza emantzipatzaileko proposamenak taldean erakitzea* (2017). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

#### Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M<sup>a</sup> Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M<sup>a</sup> Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

---

**Lege-gordailua:** BI-1805-2016

5.zk., 2018ko urria

**Diseinua eta Maketazioa:** Marra, S.L.

**Azaleko argazkia:**

Joseba Sainz de Murieta 

---

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengai baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

#### Finantzatzailea:



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

#### Argitaratzailea:



Universidad  
del País Vasco



Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# aurkibidea



2

## editoriala

Kompetentzietatik gaitasunetara: goi mailako hezkuntza berrirudikatzeko proposamen bat

*Alejandra Boni Aristizábal*

4

## sakonean

Ikasketak-zerbitzu kritikoak gaitasun berrien garapenari leihoa irekitzen dionean

*María Jesús Martínez Usarralde eta Óscar Chiva-Bartoll*

10

## solasean

Ezagutza nabarmengarria Unibertsitatea-Gizartea lotura sendotzeko: elkarrizketa esperimental bat

*Jone Martínez-Palacios eta Itziar Gandarias Goikoetxea*

18

## ekin lanari

La Mundial. Sormen politikoa lantzen duen kolektibo bat, eraldaketa ekosoziala helburu

*La Mundial*

Mugimendu feministekin eta era guztietako emakumeen mugimenduekin batera ibiliz

Latinoamerikan eta Kariben

*Fondo de Acción Urgente para América Latina y el Caribe, Kolonbia*

Arriskurik gabe ezin da ikasi. Arlo formalaren eta informalaren artean

*Basurama*

Auzoko Unibertsitatea, aldaketa errealak ahalbidetuko dituzten narratibak birlantzeko espazioa

*Teatro del Barrio*

26

## begirada konprometituak

zinema/dokumentalak Las mujeres decididas • La primavera rosa

argitalpenak Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos "otros" •

Gizartearekin konprometitutako unibertsitate bat lortzeko bidean. Ikuspegi hori Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) txertatzeko bide estrategikoak

erakundeak Uni-Digna. Ongizate komunaren zerbitzura eta sozialki konprometituta dagoen unibertsitate baten alde • Internacional de la Educación

ezinbesteko agenda Garapenari buruzko ikasketen nazioarteko IV. Kongresua: "Lankidetzari buruzko ikerketa globalizazioaren mugen aurrean" • Emakumeen Mundu Martxako Nazioarteko XI. topaketa "Batu Indarrak, Urrutira Goaz. Construyamos soberanía sobre nuestros cuerpos y territorios"

30

## matxino artean

68ko maiatza. 50 urte eta gero!

*Cristina Saéz Morquecho*

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin  
lanari hay alternativas begirada konprometituak  
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

## Konpetentzietatik gaitasunetara: goi mailako hezkuntza berrirudikatzeko proposamen bat

Aldizkariaren beste zenbaki batzuetan adierazi izan den moduan, funtsezkoa iruditzen zaigu gaur egungo hezkuntza-prozesuak aztertzea, mundu osoko unibertsitateetan dauden joera merkantilista eta gerentzialak kontuan hartuta. Unibertsitate eredu horri laguntza ematen dion elementuetako bat da konpetentziak erabiltzea ikaskuntzaren emaitzak zehazteko irizpide gisa. Kontzeptuaren interpretazio guztiak eta unibertsitatean behar diren konpetentzia guztiak berdinak ez badira ere, gehien ezarri dena horien ikuspuntu instrumentala izan da.

Rychen eta Salganik *Tuning* proiektuaren (unibertsitateko konpetentziak definitzeko proiektu arrakastatsuenetako bat) autore gakoetako bik honela definitzen dituzte konpetentziak: testuinguru jakin batean, aurrebaldintza psikosozial batzuk mobilizatuz (prozesu kognitiboak zein ez-kognitiboak), eskaera konplexuei erantzuteko gaitasuna<sup>1</sup>. Ikus daitekeenez, konpetentziak argi eta garbi daude zuzenduta indibiduo batek lor ditzakeen emaitzetara, izan ekintza, aukera edo jarrera baten bitartez. Arazo konplexuei irtenbidea aurkitu eta emaitzak lortzeko erraztasun funtzional hori da, hain zuzen ere, elementu batzuk, esate baterako, trebetasunak, ezaupideak eta alde zuzeneko jarrerak, konpetentzia bihurtzen dituztenak.

Guk hemen beste eredu bat proposatu nahi dugu, gaitasunak giza garapenerako erabiltzearen ikuspegitik, horrek aukera emango baitigu unibertsitate-hezkuntza berrirudikatzeko, eta profesionalak soilik prestatu ordez, aldaketa sozialarekin konpromisoa duten hiritarrak formatuko ditu.

Pertsonak balioesten dituzten bizitza-aukerak mamitzeko dituzten aukera errealak dira gaitasunak. Ikuspegi honen erdigunean ez daude pertsonak lortzen dituen emaitzak, ezpada ekintza, aukera edo jarrera baten artean aukeratu ahal izatea bera. Hori dela-eta, gaitasunen ikuspegia askoz ere zabalagoa eta holistikoagoa da, konpetentzien ikuspegia baino. Konpetentzien ikuspegiak eskaera espezifikoari zuzendutako arazo espezifikoak konpontzen jartzen du arreta; gaitasunen ikuspegiak, aldiz, kontuan hartzen du pertsonak, beren testuinguruan, nola izan dezaketen beraiek baloratzeko arazoak dituzten bizitza bat.

Eta horrek eramaten gaitu giltzarri den beste desberdintasun batera. Konpetentziak kanpoko eskarira zuzenduta daude, izan ere, indibiduo bati kanpoan sortzen diren arazoak, hau da, gizarteko beste indibiduo edo erakunde batzuen arazoak konpontzeko trebetasunak ematean datza. Aitzitik, gaitasunak ez daude, nagusiki, kanpoko eskariei erantzutera zuzenduta. Nahi den bizi-estiloa aukeratu eta garatzeko askatasun indibidualak gidatzen dituzte, beraz, indibiduo horiek desiragarritzat eta egokitzat jotzen dituzten balioek.

---

1 Rychen eta Salganik (2003:43). *Key Competencies for a successful life and a well-functioning society*. Gottingen: Hogrefe and Huber.

Hezkuntzak –unibertsitarioak– zeregin garrantzitsua izan dezake gaitasunak zabaltzeko orduan. Lan merkatuan sartzeko aukera eskaini ez ezik (hori izango litzateke ikuspegi nagusia hezkuntzako giza kapitalaren fokatzeetan), desparekotasunak gainditzen lagundu eta injustiziak erreparatzeko prozesuetan ere parte hartzea erraz dezake. Izan familia-, komunitate- edo nazio-mailan, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko gaitasuna susta dezake. Halaber, rol birbanatzailea edo ahalduntzekoa izan dezake, politikoki antolatzeko gaitasunak sustatuz gero, talde babesgabeen, marjinetuen eta baztertuen artean.

Horregatik, erabakigarria da pertsonen gaitasunak bultzatzen dituen unibertsitate-hezkuntzak ardura izatea hainbat gairekiko, besteak beste, hezkuntza-aukeren desparekotasunari dagokiona. Guztiek ez dute aukera bera, hezkuntzaren bidez, beren gaitasunak zabaltzeko, faktore ekonomiko, sozial, kultural eta pertsonalak tarteko. Desparekotasun horiek hezkuntzara sartzeko aukeran ez ezik, heziketaren esperientzian zein heziketaren emaitzetan ere agertzen dira.

Gaitasunen ikuspegiak ere baditu ondorioak curriculum zein pedagogietan. Ildo horretatik, lotura sendoak ditu zenbait pentsalariren pedagogiekin, besteak beste, Paulo Freire, Orlando Fals-Borda eta Augusto Boalenekin. Horien arabera, hezkuntza ez da garapenaren ondorioa edo eragilea; aitzitik, hezkuntza emantzipatzeko funtsezko esperientzia gisa ulertzen dute, hau da, garapenerako bitartekoa eta garapenaren ondorioa da, aldi berean.

Horrenbestez, gaitasunen ikuspegiaren pedagogia pedagogia kritikorako modu bat izan beharko litzateke, hezkuntza munduarekin lotuko duena ikasgelatik eta hezkuntza-erakundetik harago; izan ere, gizarte-egoerak, desparekotasun-moduak bezalaxe, hezkuntzan sartzen dira. Askatasunari eta desparekotasunei buruzko hausnarketa sustatuko lukeen pedagogia izango litzateke, arreta ipiniko liekeena eragiten diguten prozesu globalei. Horrek esan nahi du, ikasgelan, ikasleak gai izan beharko direla jardueretan eragiteko. Era berean, auto-erregulazio maila handia eskatzen die ikasleei, bai eta estimulu-maila bat ere, euren ikaste esperientzian arriskuak beren gain hartzen ikas dezaten.

Alejandra Boni Aristizábal  
Katedratikoa Universitat Politècnica de València (UPV)  
eta ikertzailea INGENIO (CSIC-UPV)



María Jesús Martínez Usarralde utzitako irudia.

**María Jesús Martínez Usarralde.** Valentziako Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko pedagogo eta irakaslea da; bertan, Garapenerako eta Hezkuntzarako Lankidetzan egiten du lan duela hamabost urtetik gora. Hegoaldea inspirazio-iturri izan da *Sentipensar la Cooperación al Desarrollo en Educación* bere libururako. Berarengandik, bada, ikasi du Garapenerako Hezkuntza ikasketarekin-zerbitzuarekin uztartzen, *advocacy*-arekin (sentsibilizazioa) eta gizarte justiziarekin duen loturatik.

**Óscar Chiva-Bartoll.** Universitat Jaume I Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko Hezkuntza Saileko irakaslea da. Hezkuntza fisikoa, pedagogia kritikoa eta etika interesatzen zaizkio, eta hezkuntza-maila desberdinetan ikertzen eta aplikatzen du ikasketa-zerbitzua. Kirolaren pedagogiaren, etikaren eta giza balioen arloan egindako lanaren ondorioz, *Kirolaren Pedagogia IV. Saria* eman zioten 2017an.

Biak ala biak dira **UVApS** (Universitats Valencianes per l'ApS) sarearen koordinatzaileak. Sare hori osatzen duten berrogeita hamar irakasleek ikerketarekin eta irakaskuntzarekin lotzen dute ApS-a, Valentziako unibertsitate publikoetatik.

## Ikasketak-zerbitzu kritikoak gaitasun berrien garapenerari leihoa irekitzen dionean

Hezkuntza-praxiaren alorrean, aukeraketa metodologikoa da irakasleei beren arrastoa uztea ondoen ahalbidetzen dien eremuetako bat, ikasketak hobetu nahi dituzten estrategiak, prozedurak eta ekintzak aplikatuz (Chiva-Bartoll eta Martí, 2016). Pedagogia kritikoren proiektu emantzipatzaileari

ekiteko bide metodologiko desberdinak daude, zeinak, handinahiz baina zentzuz, beren funtsezko printzipioak lortu nahi baitituzte hezkuntzaren arloan, bereziki gaitasunen alorrean. Gure aldetik, biziki uste dugu horietako metodo bat ikasketa-zerbitzua dela (aurrerantzean, IkZ).

## Pedagogia kritikoa, ikasketarako-zerbitzu kritikorako oinarri gisa

IkZ metodo pedagogiko kritikoa gisa ulertzeko, komenigarria da aldez aurretik begiratu bat ematea teoria eta pedagogia kritikoa oinarritzeko ideiei. Lehenik eta behin, komenigarria da gogoratzea teoria kritikoa Frankfurteko eskolako intelektualek XX. mendearen hasieran eta erdialdean garatu zuten lanaren herentzia dela. Haiek utzitako ondarea arrazionaltasun instrumentalaren, kulturaren industriaren, autoritarismoaren, eta teoriaren eta praktikaren banaketaren kritikan datza.

Bereziki, ikuspuntu pedagogiko kritikoa oinarria Habermasek (1982) adierazitako jakituria osatzen duten hiru interesen –interes tekniko, interes praktikoa eta interes emantzipatzailea– bereizketatik abiatzen da. Laburbilduz, horietako lehenaren izaera instrumentala da, eta helburu jakin batzuk lortzeko bitarteko edo tresna batzuk ezagutzean eta menperatzean datza. Interes praktikoa, berriz, arrazoi praktikoa du jatorria, eta pertsonak informatu, zuzendu eta orientatu nahi ditu erabakiak hartzeko prozesuetan. Azkenik, interes emantzipatzaileak justizia, askatasuna eta berdintasuna bezalako balioei jarraitzen die, gizarte-sistematan dauden botere eta menpekotasun harremanak gainditzen saiatzeko.

Hiru interes nagusi horiek curriculumaren diseinura eraman ditu Shirley Grundy (1991) australiarak; izan ere, horiek curriculumean dituzten eragin teorikoak aztertzen ditu, curriculumaren diseinu kritikoa edo emantzipatzailearen eredu gehiago nabarmenduz, mundu soziala hausnarketaren bidez eraikitze eta berreraikitze asmoz. Bere esanetan, eredu hori ekintzaren eta hausnarketaren arteko elkarrekintza dinamiko da. Autorearen arabera, kritika egiteko orduan, komunitate osoarentzat orokortu daitezkeen interesak hartzen dira erreferentziatzat. Ildo beretik, Carrek eta Kemmisen (1988) eta Kemmisen (1988) planteatzen dute hezkuntza-fenomenoak sozialki eraikitako eta balioekin konprometitutako errealitate kulturalak direla. Horregatik, irakaskuntza-ikasketa prozesuak testuinguruko errealitate desberdinetara egokitu behar du, halako moldez non curriculum eragile desberdinen adostasunetik, komunikaziotik eta parte-hartzetik sortuko baita. Irakasleei dagokie, beraz, ikasleen hausnarketa bultzatzea eta gaitasun kritikoa sustatzea, berdintasun, autonomia eta askatasun maila batetik beren ezagutza propioa eraikitze aukera utziz.

“Ikasleei dagokie, beraz, ikasleen hausnarketa bultzatzea eta gaitasun kritikoa sustatzea, berdintasun, autonomia eta askatasun maila batetik beren ezagutza propioa eraikitze aukera utziz”

Horretarako, erabat baztertzen da jakituria tekniko gisa ulertzen den didaktikaren ikusmoldea, non irakasleek ez baitituzte zalantzan jartzen helburuak, balioak eta, azken finean, bere ekintza pedagogikoa azken zentzua. Ikusmolde kritikotik, hezkuntzak identitate emantzipatzailea du, bereziki, eta, beharrezko tresna gisa, ulermenaren eta autonomiaren garapenean datza, talde sozial jakinen artean dagoen zapalketa eta manipulazioa gainditzeko.

Freirentzat (2006 eta 2015), pedagogia kritikoa erreferente eztaba daezinentzat, hezkuntzaren oinarritzeko papera da kontrol, injustizia eta esplotazio harremanen menpe dauden gizakiak eta talde sozialak askatzea. Planteamendu hori ulertzeko, garrantzitsua da “kontzientizazio” kontzeptua berreskuratzea, zeinak kontzientzia eta ekintza kritikoa bat lortu izana esan nahi baitu gaingiroki. Kontzientizazioa askatasun soziala (ikuspuntu materialetik) lortzeko bitarteko gisa uler daiteke, baina baita helburu gisa ere, askatasun pertsonala dakarrelako berekin ikuspuntu kulturaletik eta soziopolitikotik.

Pedagogia kritikoa asmoa da pertsonak eta taldeak kontzientziatzea (askotan isilean gordetako) botere-harremanez jabetu daitezen, errealitatearen eraldaketan gaitzea, eta eragiten dieten injustiziengandik eta zapalketarengandik aska daitezen ahalbidetzea. Freirek (2006) heziketa-prozesuak ulertzeko eta bideratzeko modu hau definitzen duten oinarritzeko lau printzipio proposatzen ditu:

- Heztea errealitatea kritikoki ezagutzea da.
- Heztea errealitatea aldatzeko utopiarekin konprometitzea da.
- Heztea aldaketa horren subjektuak trebatzea da.
- Heztea elkarrizketa da.

Horietan oinarrituta, hezkuntza-praxi bakoitzak berekin ekarriko du irakasleek beren eskema

“Horiek horrela, Freireren kontzientizazioaren ildotik, IkZ-k bere esku dauka aldaketak bultzatzea bai ideien arloan bai gizarte-arloan”

kognitiboan dituzten aurreiritziak, sentimenduak, jakituria inplizituak, esperientziak eta praktikak jorratzea eta aztertzea. Horiek horrela, irakasleek egoera errealei buruzko eztabaidaz eta elkarrizketaz betetako zereginak eman beharko dizkiete ikasleei, errealitatea ulertzeko dituzten gaitasunak eta aukerak handitu ditzaten. Hori lotuta doa gizarte-testuinguruarekiko elkarrekintzaren aldeko apustu garbi batekin, azpikulturen, istorio pertsonalen eta desberdintasun partikularren eragina nabarmentzeko, halako moldez non eskolaren eta bizitzaren artean elkarrizketa sortuko baita. Horiek horrela, Freireren kontzientizazioaren ildotik, IkZ-k bere esku dauka aldaketak bultzatzea bai ideien arloan bai gizarte-arloan.

## Konbergentzia ikasketaren-zerbitzuaren eta pedagogia kritikoaren artean

Inplikaturik dauden eragileei –erakunde laguntzaileen profesionalei, ikasleei eta irakasleei– dagokienez, esan daiteke bakoitzak izan beharko lukeela protagonista proiektu bakoitzaren plangintzan (Fernández Carrión eta Martínez Usarralde, 2015). Izan ere, ezinbestekoa da bi eragileen laguntza eta elkarlana, irakasleek gida-rola izanik (Pallarès Piquer eta Chiva-Bartoll, 2017). Zentzu honetan, Butinek (2003) ohartarazten du IkZ-k metodo kritiko gisa duen ahalmenak indarra galtzen duela neurri handi batean, baldin eta ez badira sortzen ikasle, irakasle eta eragile komunitarioek programaren beraren barruan botere-rolak alde batera uzten ez dituzten dinamikak.

Ezaugarri pedagogikoei dagokienez, eredu pedagogiko esperientzial, aktibo eta hausnartzaile batetik abiatzen da. Ikasleek planteatzen dituzten esperientzietan, ikasleak aktiboak izango dira, eta proiektuaren fase desberdinetan, hau da, plangintzan, burutzean eta balorazioan hausnartuko dute inplikaturik gainerako agenteekin. Horiek horrela, helburua da ikasketa akademikoak, sozialak eta pertsonalak sortzea beharrian sozialari ezaupide espezifikoak eta balio erlatiboak aplikatzen zaizkion bitartean.

Azkenik, talde sozialari dagokio ahalik eta era aktiboenean parte hartzea proiektuaren diseinuan eta garapenean, zerbitzuaren hartzaile hutsaren eta/edo ikasketa esperientzialen emaila pasiboaren rola atzean utziz. Gainera, boterea eraldatzeko eta birbanatzeko aukerak eta orientazioa izan behar ditu. Horregatik, bere papera da ikasleen sentsibilizazioa bultzatzea eta gizarte-injustiziako egoerak antzemateko eta horiei aurre egiteko prestatzea, neutraltasun politikoarekin jarrera kritikoa izanez.

Freireren korrontearen oinarriko premisetatik abiatuta, lotura hauek antzeman ditugu IkZ-ren eta pedagogia kritikoaren artean:

- **Justizia soziala:** hezkuntza-praxiaren xedea da berdintasun eza eta bazterketa dagoen egoera sozial bat errotik borrokatzea. IkZ-n zerbitzua jasotzen duen taldea desabantaila sozialean edo bazterketa arriskuan dagoen talde bat da definizioz. Ezaupideen eraikuntza gizarte-premiako testuinguruetan sortzen da ezinbestean.
- **Aldaketa:** neutraltasun politikoa ez da posible. Beharrezkoa da injustiziaren kontra eta zapalduta dauden taldeen interes unibertsalizagarrien aldeko jarreraren bat hartzea. IkZ-k konpromisoa bultzatzen du aldaketa sozialarekin, berdintasun eta autonomia premisen arabera.
- **Deliberazioa:** inplikaturik dauden eragileen arteko elkarrekintza horizontala da bereziki. Ikasleak aktiboak dira prozesuaren une guztietan: plangintzan, burutzean eta balorazioan. IkZ kritikoan pertsona guztiek pertsona guztiengandik ikasten dute; beraz, aniztasuna onura aberasgarritzat jotzen da. Baterako hausnarketa, elkarrizketa eta deliberazioa gizartearen eta gizabanakoaren eraldaketaren oinarria dira. IkZ-k berekin dakar irakasleen, ikasleen, zerbitzuaren jasotzaileen eta inplikaturik egon daitezkeen gainerako eragileen arteko norabide anitzeko atzeraelikadura.
- **Kontzientizazioa:** bazterturiko gizataldeekiko elkarrekintzatik sortzen diren ezaugarriak eta ulermenak nortasun aldaketa bat dute berekin, zeina, ondoren, jarrera aldaketa bihur baitaiteke Horrela, IkZ kritikoak aldaketaren subjektuak hezten (kontzientizatzen) ditu. Hezikuntza-erakundeek bideratuko duten gizartea aldatzeko konpromiso esplizitu bat behar da. Eskola-gizartea lotura IkZ-ren sine qua non baldintza bat da.

Laburbilduz, injustiziazko benetako testuinguruetan egindako esperimenezko eta hausnartze-pra-



xitik abiatuta, IkZ-k inplikaturako eragileen kontzientizazioa sustatzen du, gizarte-erlaldaketa eraginkor baterako oinarriak sortuz (Deeley, 2016). Horrek nabarmendu egiten du IkZ-k pedagogia kritikorako sarbide metodologiko gisa daukan balioa.

## Ikasketa-Zerbitzua sailkatzen: IkZ asistentziala *versus* kritikoa

Irakasle gehienentzat gutxi ezagutzen den metodo pedagogikoa da IkZ. Alabaina, jarduera aitzindarien lehen berriak XIX. mende bukaerakoak eta XX. mende hasierakoak dira. Guztiarekin ere, Ramsayk, Sigmonnek eta Hartek 1967an erabili zuten lehen aldiz IkZ (*service-learning*) terminoa.

Furco eta Billig (2002) bezalako erreferente garrantzitsuek aldi berean ikasleei eta gizarteari protagonismoa ematen dien, eta benetako testuinguruetan, modu esperimentalean eta onura sozial bat eskaintzeko asmoz trebetasunak aplikatu eta curriculum-ikasketak eraiki nahi dituen metodo pedagogiko gisa definitzen dute IkZ. Sortu zenetik, asko zabaldu da iragan den mendearen azken herenean. Hori erakusten du ikerketari eta ezarpenari dagokienez IkZ-k izan duen hazkunde handiaren hurbilketa panoramiko bat eskaintzen duten Yoriorren eta Yeren metaanaliak (2012).

IkZ-k euskarri teorikoa aurkitzen du zenbait heziketa-paradigmatan; paradigma horien artean, oinarri eztabaidaekin gisa, Deweyren ikasketa esperientziala dago azpian (1938). Hala ere, ikuspuntuaren eta azpian dauden asmo pedagogikoen arabera, hori ulertzeko ikuskera edo modu desberdinak daude. Aplikazio bakoitzaren helburuaren arabera, Mortonek (1995) sailkapen hau proposatu zuen:

- Karitatean oinarritutako IkZ; zerbitzu-emaileak kontrol osoa du erabakien gainean.
- Proiektuan oinarritutako IkZ; problematika jakin baten konponketan du arreta gunea jarrita.
- Gizarte-aldaketan oinarritutako IkZ; arazoaren edo injustiziaren erroari aurre egitean du arreta jarrita.

Lehen sailkapen-saiakeraren ondoren, Mitchellek (2008) IkZ-ren sailkapen dikotomikoaren planteamendu berri bat aldarrikatu zuen: *tradizionala kri-*

«Eredu kritikoak urrutiago iritsi nahi du, eta injustizia soziala sortzen duten botere-harremanak berreraikitzeke oinarriak finkatu nahi ditu»

*tikoaren aurrean.* Mitchellek «tradizionala» terminoa erabili arren, kontuan hartuta Chiva-Bartollen eta García-Puchadesen hautemateak (2018), nahia-go dugu «asistentziala» erabili; izan ere, aurrekoa, hezkuntza-arloan, gaindituta edo gainditzeko bidean dauden metodo, jardunbide edo ikuspuntuekin lotu ohi da gutxiespen-zentzuan.

Batetik, IkZ-ren erakunde sustatzaile garrantzitsuenek adierazitako makina bat kontzepzio asistentzial daude; bestetik, indarrarekin sortzen dira aurrekoetatik nabarmen bereizten diren kontzeptualizazio pedagogiko-filosofikoak, jarrera askoz kritikagoa eta eraldatzaileagoa izanez. Beraz, egile askoren ustez, ezin da esan edozein IkZ-k, per se, jarrera kritiko bat duenik soilik justizia sozialerako joera duela aitortzen duelako.

IkZ asistentzialaren eta kritikoren arteko alde nagusia da lehenak komunitate-zerbitzu baten bidez izandako esperientzian oinarritutako curriculum-ikasketan ardatzen dituela bere nahiak eta jarduketak; eredu kritikoak urrutiago iritsi nahi du, eta injustizia soziala sortzen duten botere-harremanak berreraikitzeke oinarriak finkatu nahi ditu. Bereiziki, Mitchellek (2008) dio hauek direla IkZ kritikoa zehazten dituzten ardatzak:


- Aldaketa sozialeranzko orientazioa.
- Boterearen birbanaketa.
- Benetako harremanen garapena.

Eredu kritikoaren aldeko pertsonak ohartarazten dute, halaber, IkZ asistentzialak (tradizionalak) arriskuak dakartzala berekin; izan ere, *statu quo*a iraunaraztea laguntzen duten estereotipoak indartzen ditu, hala nola, ikasleen eta talde hartzailearen arteko harreman desberdina. Bere aldetik, Jonesek eta Kiserrek (2014) esaten dute IkZ mota desberdinak zehaztu ditzaketan irizpide gehiago daudela; horien artean nabarmenenak hauek izango lirateke:

- Ulertzeko modua, hori aplikatzea erabakitzen denean.

- Proiektu bakoitzari intelektualki nola ekiten zaion.
- Komunitatearen hartzaileekin egindako lanaren izaera.

Horiek horrela, sailkapen bitar bat (asistentziala-kritikoa) bultzatu beharrean, Chiva-Bartollen eta García Puchadesen (2018) oinarrituz, bi joerak barne hartuko dituen IkZ-ren kontzepzio baten alde agertuko gara (1. irudia).



1. irudia. IkZ-ren osagai eraldatzailea.

Horiek horrela, edozein IkZ-k izango luke osagai eraldatzaile bat, «gutxi eraldatzeko gai den» mutur baten eta «asko eraldatzeko gai den» beste mutur baten artean ibiliko litzatekeena, inplikaturako eragileen diskurtsoei, jardunbideei eta harremanei eragiteko moduaren arabera (Kemmis eta McTaggart, 1998). Gutxi eraldatzeko gai den muturrean sartuko genituzke egungo bibliografiaren arabera ikasleen jarrera prosozialetan aldaketa bat ahalbidetzeagatik bereizten diren IkZ asistentzialak. Asko eraldatzeko gai den muturrean sartuko genituzke literaturaren arabera banakako aldaketak eragin ez ezik, desberdintasun sozialak legitimatzen dituzten egiturak ere, neurri handiago edo txikiagoan, aldatzen dituzten IkZ kritikoa. Horrela ulertuta, IkZ bat kritikotzat jo daiteke, baldin eta diskurtsoak, jardunbideak eta harremanak aldatzeko duen helburua areagotzen badu, aldaketa soziala aldatzeko premia nabarmentzera eramanez, boterearen eta baliabideen banaketa justu bat galarazten duten aurreiritzi sozialei eta estereotipoei aurre eginez.

## ***“Gaitasuna, Gaitasuna, Gaitasuna... Eta hiru aldiz esaten dudana, egia da”.*** **IkZ kritikoa gaitasunen ereduarekin duen erlazioa**

Lewis Carrollen “Snarkaren atzetik” bere poema ospetsuan dagoen esaldi argigarria, Hellmanen ahotan jarrita, anekdota bikaina bihurtzen da IkZ kritikoa zenbaki monografiko honek lantzen duen gaitasunen ereduarekin lotzeko.

Gaitasunen araberako ikasketa komunitateak zehaztuta dator neurri handi batean, horrek berekin dakarren irakurketa soziopolitikoarekin, eta gaitasunetan oinarritutako ereduak, berriz, ikasleetan du bere jatorria (Martínez-Usarralde, Murillo eta García-López, 2017). Gure aldetik, pentsatzen dugu IkZ-k gaitasunen hezkuntza-eremua gaintzen duela; izan ere, irakaskuntza-ikasketa prozesuan tradizionalki ‘kontrolatuta’ dagoenarekin haustura eragiten duten egoera errealak eta dibergenteak proposatzen ditu, gaitasunen *pack* lakratu moduan, halako moldez non gaitasunak garatzeko egon daitezkeen bide emantzipatzaileak irekitzen baititu, eta, nolabait, bat egiten baitu etenduraren pedagogiarekin (Biesta, 2010), eta, zehatzago, Brucek (2013) deitutako IkZ post-kritikoarekin: hitzartutako prozesua hausten eta ikasketa dibergentera... askatasunera deitzen duen une pedagogiko baten existentziarekin. Hau da: gaitasunen hitzartutako eta zabalduetako ereduaz harago, IkZ katalizatzaile onena da modu pedagogiko sakon baten bidez gaitasunen ikuskeran sakontzeko.

Ildo honetan, baieztatzen dugu, uste honetan sakonduz, IkZ-k presentziaren pedagogiatik ere maileguz hartzen dituela bere oinarriak; izan ere, esperientziaren subjektuaren doikuntza bat bezala ikusten du heziketa, eta ikasleak bultzatzen ditu beren presentzia (munduan) sortzera, beren egoera sozialaren eta kulturalaren behaketan eta azterketan oinarrituz. Modu honetan, bai ikuspuntu indibidualetik bai sozialetik eta kulturaletik, IkZ etengabe bilakatzen ari den izaki gisa, eta ez izaki aldaezin gisa ulertzen den pertsona batengatik kezkatzen den prozesu dinamiko bat bezala ulertu beharko litzateke (Pallarès Piquer eta Chiva-Bartoll, 2017).

## Erreferentzia bibliografikoak

- Biesta, Gert (2010): *Good Education in an Age of Measurement: ethics, politics, democracy*. Boulder, Paradigm Publishers.
- Bruce, Judy (2013): "Service Learning as a Pedagogy of Interruption". *International Journal of Development Education and Global Learning*, 5. zk. (1), 33-47. or.
- Butin, Dan (2003): "Of what use is it? Multiple conceptualizations of Service-Learning within education". *Teachers College Record*, 105. zk. (9), 1674-1692. or.
- Carr, Wilfred eta Kemmis, Stephen (1988): *Teoría crítica de la enseñanza*. Bartzelona, Martínez Roca.
- Chiva-Bartoll, Óscar eta Martí, Manuel (koord.) (2016): *Métodos pedagógicos activos y globalizadores*. Bartzelona, Graó.
- Chiva-Bartoll, Óscar eta García Puchades, Wenceslao (2018): "Educación física y aprendizaje-servicio: un enfoque pedagógico crítico y experiencial", Lorente Catalán, Eloísa eta Daniel Martos García: *Educación física y pedagogía crítica*, Universitat de València eta Universitat de Lleida, Valentzia-Lleida, 215-240. or.
- Deeley, Susan (2015): *Critical Perspectives on Service-Learning in Higher Education*. New York, Macmillan.
- Dewey, John (1938): *Experience and education*. New York, Macmillan.
- Fernández Carrión, Yolanda eta Martínez Usarralde, María-Jesús (2016): "Cuando sentimiento y acción confluyen en la práctica educativa. Alianzas entre educación para el desarrollo y aprendizaje servicio para una ciudadanía global". *RIDAS-Revista Iberoamericana de Aprendizaje Servicio*, 2. zk., 111-138. or.
- Freire, Paulo (2006): *Pedagogía de la indignación*. Madril, Morata.
- Freire, Paulo (2015): *Pedagogía liberadora*. Madril, La catarata.
- Furco, Andrew eta Billig, Shelley. (2002): *Service Learning. The essence of the Pedagogy*. Greenwich, CT.
- Habermas, Jürgen (1982): *Conocimiento e interés*. Madril, Taurus.
- Jones, Angela eta Kiser, Pamela (2014): "Conceptualizing critically as a guiding principle for high quality academic service learning". *International journal of teaching and learning in higher education*, 26. zk. (1), 147-156. or.
- Kemmis, Stephen (1988): *El currículum: más allá de la teoría de la reproducción*. Madril, Morata.
- Kemmis, Stephen eta McTaggart, Robin (1988). *Cómo planificar la investigación-acción*. Bartzelona, Laertes.
- Martínez Usarralde, María Jesús; Murillo, Juan eta García López, Rafaela (2017): "The ERASMUS experience and its capacitating potential: Analysis of Adaptive Capabilities". *International Journal of Educational Development*, 53. zk., 101-109. or.
- Morton, Keith (1995). "The irony of service: Charity, project and social change in service-learning". *Michigan Journal of Community Service Learning*, 2. zk., 19-32. or.
- Mitchell, Tania (2008): "Traditional vs critical service learning: engaging the literature to differentiate two models". *Michigan Journal of Community Service-Learning*, 2, 50-65. or.
- Pallarès Piquer, Marc eta Chiva-Bartoll, Óscar (2017): *La pedagogía de la presencia. Tecnologías digitales y aprendizaje-servicio*. Bartzelona, UOC Argitaletxea, Colección Pedagogía Contemporánea.
- Yorio, Patrick eta Ye, Feifei (2012): "A Meta-Analysis on the Effects of Service-Learning on the Social, Personal, and Cognitive Outcomes of Learning". *Academy of Management Learning & Education*, 1 (11), 9-27. or.



María Jesús Martínez Usarralde utzitako irudia.



Joseba Sainz de Murieta utzitako irudia.

## Ezagutza nabarmengarria Unibertsitatea-Gizartea lotura sendotzeko: elkarrizketa experimental bat

**Jone Martínez-Palacios**, feminista, ikerlaria, Politika eta Administrazio Zientziako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/IPV) 2010. urteaz geroztik eta Zientzia Politikoan doktorea. Ikerlari ibilbidea Bartzelonan hasi zuen filosofia ekofeminista ezagutu zuenean. Gaur egun Parte Hartuz ikerketa taldeko kide da, zeinetan teoria feministari eta demokratizazioari buruzko lanak garatzen dituen. Bere azkenaldiko lanen artean honako hauek daude: "Equality and diversity in democracy. How can we democratize inclusively?" (*Equality, Diversity and Inclusion: An International Journal*, 35, 2016, 350-63 or.); "Inclusive democratization: normative proposals and political practices" (*Local Government Studies*, 43/4, 2017, pp: 577-97); "Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad" (*Investigaciones Feministas*, 8, 2017, 53-71. or.), *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias* (Coord. Icaria, 2017) eta *Innovaciones democráticas feministas* (Dykinson, 2018).

**Itziar Gandarias Goikoetxea**, Psikologia Sozialean doktorea Bartzelonako Unibertsitate Autonomotik, Deustuko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakaslea eta Esku-hartzearen Sozialaren Psikologiako Masterreko irakaslea, zeinetan epistemologia eta metodologia feministei buruzko materialak dituen irakasgai. Ikerketa intereseko arloak interseksionalitatearen teoria eta praktika, metodologia aktibistak eta feministak eta feminismoak bazterketa sozialaren aurka egindako ekarpena ditu. Haren argitalpenen artean honako hauek nabarmentzen dira: "Tensiones y distensiones en torno a las relaciones de poder en investigaciones feministas con Producciones Narrativas" (2014), "Habitar las incomodidades en investigaciones activistas feministas" (2015), "¿Un neologismo a la moda?: Repensar la interseccionalidad como herramienta para la articulación política feminista" (2017) eta "Estoy viva: Cartografías de resistencias de mujeres provenientes del África Subsahariana" (2017). Mujeres del Mundo Babelen eta Emakumeen Munduko Martxaren Euskal Herriko Plataforman parte hartzen du.

2018ko apirilaren 19an, "Bestelako Unibertsitatea. Bestelako subjektuak, bestelako jakinduriak eta bestelako aliantzak Unibertsitate eraldatzaile baten-tzat" jardunaldia egin zen EHU/UPVko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko taldeak antolatuta. Marko horretan, elkarrizketa hau sinatzen dugunok Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko loturak sendotzeko moduei buruz hitz egiteko aukera izan genuen. Elkarrizketa hori, modu irekian, geure bizipenetan eta geure genealogia feministan oinarritu zen. Unibertsitatea-Gizartea harremanaren une honetako egoerari buruzko gure diagnostikoarekin hasi eta gero Unibertsitatea justizia sozialerako tresna gisa ikustera bideratutako proposamen posibleekin jarraituta osatu genuen elkarrizketa hori perspektiba kokatua eta adierazten duenaren ikuspuntua konektatzen dituen tradizio epistemologikoarekiko gure atxikimendua ikertuz egin zen. Horrela, ezagutza kokatuaren eta ikuspuntuaren orientabide epistemologikoen artean agertzen diren tentsioak gorabehera, elkarrizketaren oinarrian uste partekatu bat izan zen zeinaren arabera Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko harremanez ezagutza kokatu bat -harreman sozialak botere egitura lokalizatu eta kontestualizatuak zeharkatzen dituztenez- eta botere eremu bateko posizio menderatuen abantaila epistemikoa -euskar arlo akademikoan, emakumeek, gazteek eta feministek okupatutako posizio bat, adibidez- bereganatuta hitz egiteak erresistentziarako heuristika bat liberatzeko aukera ematen duen.

Horrela, Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lotura aurkitzeko, argitzeko eta esperimintatzeko xedez apirilaren 19an Jardunaldian gertatu zena geure buruak berriz pentsatzeko ariketa bat izan zen: gure praktikak, ikerlari irakasle feminista gisa gure eguneroko bizitzan ditugun zailtasunak, gure deserosotasunak, gure erresistentziak... Ispilu-ariketa kolektibo bat izan zen, gogoetatze elkarrizketatuko praktika zintzo batean oinarritua.

**Jone Martínez-Palacios.** Jardunaldiaren aurreko hilabetean Itziar eta biok iluntasunari orduak lapurtuz landu genuen testu bat trikotatzen aritu ginen. Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko harremanez geu esperimintatzen ari ginenetik abiatuta hitz egitea erabaki genuen. Jabetu ginen gauzak esateko gogoia genuela, artean adierazi gabe genituen baina aspaldidanik mastekatzen ari ginen ideiak geneuzkala. Hortxe zeuden, aurkeztuak izateko zain eta astindu egin genituen. Itziarrekin

“Dударik gabe, kapital kultural instituzionalizatuaren metaketak garrantzitsua izaten jarraitzen du errealitatearen eraikuntza politikoan”

hitz egiteak lagundu egin zidan zentzu bat ematen gaur egun bizi garen Unibertsitatean gertatzen dena ulertzeko dudan moduari, eta horrela lau ideia sortu zitzaizkidan.

Lehena da arlo akademikoa gero eta arlo heteronomoagoa delako ustea. Arlo akademikoak arlo politikoaren aldean duen heteronomia -jatorri bat baino gehiago izan ditzakeena, kasu honetan bezero izaeran oinarritutakoak-. Bourdieuk gogora ekarri zuen (2000:76): "arlo baten heteronomiaren agerpen funtsezkoa da kanpoko arazoak, bereziki politikoak, zuzenean adierazten direla hartan". Horrela, adibidez, Cristina Cifuentes politikari espainiarraren Master tituluaren faltsifikazioaren kasu oraindik oraingoak bi arloen konfigurazioari buruzko zantzuak ematen dizkigu -politikoa eta akademikoa-, eta bide ematen gure intuizioari: lehenik, Akademiak politikarekiko duen mendekotasun gero eta handiagoa. Bigarrenik, zilegitasun politikoaren bilaketa tituluaren bidez. Dударik gabe, kapital kultural instituzionalizatuaren metaketak garrantzitsua izaten jarraitzen du errealitatearen eraikuntza politikoan. Hirugarrenik, bi arloen arteko ondasunen eta eraginien transferentziak, klase pribilegiatu baten mesederako. Zientzien eta Akademiaren ezagutza ekoizpenaren objektibotasuna aldarrikatzen dutenek kontuan hartu beharko lukete hau.

Bigarrenak arauak arlo akademikoan eragiteko duten moduarekin du zerikusia. Uste dut gaur egun daukagunaren diagnostiko bat egiteko oso erabilgarria dela "arloaren" ideia bourdieutarra. Oro har, "esan daiteke arlo orotan mota jakin bateko ondasun bakan batzuek osatutako kapitalaren monopolio bat lortzeko borrokatzen dela. Monopolio hori bereganatzeko borroka monopolioaren defendatzaileen eta merkatuan horretarako behar den kapitalik gabe sartu nahi dutenen arteko aurkakotasunean antolatu ohi da" (Bourdieu, 2013: 21). Hortik ondorioztatzen da arloak borrokalekuak direla. Horietan, egileak "ondasun bakanak" deritzenak metatzea bilatzen da, hau da, lehian dagoen kapital forma bat baino gehiago (soziala, ekonomikoa, kulturala, sinbolikoa). Borroka eremu

horietan joko arauak daude. Arloen ezaugarria da, bai eta arlo akademikoena ere, arauak etenik gabe daudela jokoan. Batzuk adierazi egiten dira, itxuraz behintzat –irakasle tituluduna izateko irizpideak, master batean sartzeko irizpideak eta abar–, beste batzuk sotilagoak dira –gorputz jarrerak–. Uste dut arau horiek eraldatu egin direla oso denbora gutxian, exijentziaren diskurtso inbertsio ekonomikoz hustutako batek bideratuta. Horrek diziplinan eta kontrolean (gorputzarena, ahalmen analitiko-kognitiboena eta abar) oinarritutako "entrenamendua" eskatu du, zeinak gaitz asko sartu dituen Akademian.

Hirugarrenak ezagutzaren ekoizpenean arauak bizkor aldatzen direlako egitatearekin du zerikusia. Weberrek zioen (1919:185): "Alemaniako unibertsitate bizitza amerikartzen *ari da*, gure bizitza ere amerikartzen den bezala oso puntu garrantzitsuetan, eta ziur nago bilakaera horrek, denborarekin, eragin egingo diela artisaua bera lanerako bitartekoen (bereziki liburutegiaren) jabe deneko irakasgaiei ere, iraganean artisaua bere tailerraren jabe zen bezala, eta nirea ere irakasgai horien artean dago". Weberrek erreferentzia egiten dion burokratizazio neoliberala oso argia da gaur egun Espainian, non irizpide politikoetatik "desitsatsitako" unitate administratiboen erabakiek gero eta eragin handiagoa duten. Bezero izaeran oinarritutako tradizio burokratikoaren duen unibertsitate antolakuntzako egituraren ondorioz, zeinari gehitzen zaion unibertsitate politiken kudeaketaren noraez



Joseba Sainz de Murieta utzitako irudia.

liberala, zeinetan "ezagutzaren nazioartekotzea", "baldintzen malgutzea", "kalitatearen bilaketa" eta "ikerketaren etekina" Unibertsitatearen kudeaketa hiztegiaren parte bihurtu diren berehalako batean, ezinezkoa da artisautza ezagutzaren ekoizpenean, bai eta baretasuna eta alaitasuna ere. Ezagutzaren ekoizpeneko prozesuko artisautza gutxi-asko elitistatik masan egindako ekoizpenera iragan gara kalitate estandarrei erantzuteko.

Laugarren ideiak hartutako arauak daudelako ustearekin du zerikusia, profanoarekiko nazka bat, Akademian gorputz hartua, justizia sozialera bideratutako unibertsitatearen eta Gizartearen arteko harreman bati forma ematea baldintzatzen duena. Kalitatearen bilaketa horretan, arlo bat 6/2001 LOak edo 43/2015 EDak gonbidatzen gaituen zentzuan bikaintasunera bideratzeak, horretarako ez dauzkagun bitartekoekin, zentzu askotan gaixo dagoen unibertsitate bat eragiten du. Asmo elitistako unibertsitate bat sortzen du, kapital militante bat eta ezagutza esperientzial bat zilegitasunik gabe uztearen ondorioz jakite adituaren eta jakite profanoaren arteko banaketa antolatzen duen pentsamendu bitarikoaren indartzen duena, ikasketa eskolastiko baten bidez. Pertsonalki, kezkatu egiten naute "ikusgarritasun" gutxien duten eta beharbada bereganatuena dauden eta Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko urruntasuna azaltzen duten arauak. Profanoari zaion nazkaz ari naiz, adibidez. Entrenatzen duzunean eta aditu ez denari izen ona galarazteko egituratzen den Akademia bat sortzen duzunean, eta nazka sentiarazten dizutenean: ortografia akatsek, kaskartzat jotzen duzunak, eruditua ez den klase sozialak; toki horretan ez dago lekuri enpatiarako, ez eta Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko lotura indartuko duen ezagutza nabarmengarri baterako ere.

**Zure kasuan, Itziar, nola esperimintatu zenuen elkarrizketaren aukera Unibertsitateak bizi duen uneari buruzko zure irakurketaz pentsatzerakoan? Eta diagnostikoko zer puntu nabarmenduko zenituzke?**

**Itziar Gandarias Goikoetxea.** Niri elkarrizketa baten bidez esperimintatzeko proposamenak elkarren aurkako emozioak sorrarazi zizkidan hasieratik. Batetik, jakin-mina eta tximeletatxo batzuk sabelean, jakiteko zer aterako zen azkenean, eta, bigarrenik, deserosotasun eta antsietate pixka bat irudipena nuelako ariketa horrek eskatuko zuela mahai gainean jartzea neureganatutako eta barneratutako praktika

☺ Merkataritzako logika neoliberalak unibertsitateak zeharkatu dituzte; eta, horregatik, gaur egun unibertsitate sistemak logika merkantilista, kolonial, arrazista eta kapitalista bati erantzuten dio ☺

batzuk, harro egoteko motibotzat ez ditudanak, eta horietaz kontziente egitea. Egia da nekeza zaigula zeren aurrean jarriko gaituzten ez dakigun prozesuak hastea, "ibiliz galdetzea" eskatzen dutenak, hau da, beren kabuz egiten dutenak aurrera, immanentek direnak, eta ez daukatena hartara zuzendu eta han beren tentsio guztiak agortzeko aukera ematen duen foku jakin bat. Azken batean, gertatuko denaren inguruko ezjakintasunean mugitzea, zehaztu gabe dagoenera irekitzea eta nahasmendua onartzea, zeure burua eramaten uztea, ez kontrolatzea eta abar. "Bestelako" bideetan zehar mugitzeak nork bere buruari eta geuk zein besteek gerure buruari buruz eraikitako ideari aurre egitea dakar. Gogoan dut geure buruari proposatutako zereginetako bat zela geure buruari desobeditzea, ez kasurik egitea daukagun (auto)ezarritako barne autoexijentzia horri, hain zaila geuregandik erazten. Izan ere, ondoren ikusiko dugun moduan, gauzak errazten ez dizkigun sistema baten barruan gaude. Merkataritzako logika neoliberalak unibertsitateak zeharkatu dituzte; eta, horregatik, gaur egun unibertsitate sistemak logika merkantilista, kolonial, arrazista eta kapitalista bati erantzuten dio.

Zenbakiei kasu eginez gero, egiaztatuko dugu Unibertsitatean emakume asko sartzen den arren, are ikasketa teknikoetan ere, gizon baino emakume gehiago galtzen da karrera akademikoak aurrera egin ahala. Gaur egun, katedratiko diren pertsonen %21 baino ez dira emakumeak Espainian, eta erretoreen eta aldizkari zientifikoaren editoreen ehunekoak are murriztagoa da. Azken 10 urteetan, aurreratu egin da, baina oso makal, eta horrek pentsarazten du belaunaldi aldaketak denbora asko beharko duela bere kabuz arazoa murrizteko.

Gainera, kategoria profesional berean eta "antzinakotasunaren" edo "produktibitate zientifikoaren" bidetik, gizonak emakumeek baino soldata nabarmen handiagoak dituzte. Ikusgai diren faktoreek azaltzen ez duten soldata diskriminazioa %30era irits daiteke irakasgai batzuetan.

Ikerketen arabera, hitzaldietan gizonak egindako aurkezpenak luzeagoak dira eta gizonak kategoria profesional bereko emakumeek baino denbora gehiagoz hitz egiten dute. Halaber, emakumeek galdera gutxiago egiten ditugu zientzia mintegietan. Gizonak gonbidapen gehiago jasotzen dituzte mintegietan eta hitzaldietan aurkezpenak egiteko. Ondorioa da gizonak, presentzia bera izanik, agerikoagoak direla zientzian. Adibidez, emakumeen lana gutxiago aipatzen da; emakumeek egindako artikuluek (egile bakar, lehen egile edo azken egile gisa) gizonen lanek baino %10 aipu gutxiago jasotzen dituzte batez beste.

Sexu jazarpenari dagokionez, maizago gertatzen da gizonak nagusi diren arloetan eta garrantzi handiko motiboa da karrera akademikoa uzteko. Pikara Magazinek 2018ko urtarrilean hasitako ikerketa batek azaleratu du Espainiako Unibertsitate publikoetan 236 salaketa, kexa eta/edo abisu egin direla gutxienez ikasleei, lankideei, administrazioko langileei eta beste kolektibo batzuetako kideei egindako jazarpenarengatik. Datuek erakusten dute, Estatuko 50 Unibertsitate publiko baino gehiagorekin, posta elektronikoz zein gardentasun atarien bidez, kontaktatu eta gero, erdiak baino gehiagok (27 hain zuzen ere) jazarpen kasu bat edo gehiago erregistratu dutela. Horietatik 97 jazarpen, diskriminazio edo eraso sexualengatik izango lirarteke, eta 60 lan jazarpenarengatik.

Kasu horiek izozmendiaren punta baino ez dira, emakume ikasleen %24k adierazi baitute unibertsitate eremuan jazarpen sexuala pairatu dutela, Noelia Igaradaren eta Encarna Bodelónen 'Las violencias sexuales en las universidades: cuando lo que no se denuncia no existe' ('Sexu indarkeriak unibertsitateetan: existitzen ez dena salatzen ez denean') 2014ko ikerketaren arabera. Hala ere, ikerketak dioten moduan, oso gutxitan egiten du salaketa jazarpena jasandako pertsonak, lotsarengatik, estigmarengatik, sinetsiko ez dioten beldurrengatik, bakartua sentitzeko beldurrengatik edo erantzun polizialak edo legalak ezertarako balioko ez duen beldurrengatik.

Gainera, mundu akademikoa haztegi egokia da (auto)ustiapeneko modu berrietarako. Akademian "homo academicus" bihurtzera bultzatzen zaigu, geure buruaren enpresari, eta horrek "nork bere burua" ekoiztera behartzen du. Byung-Chul Han filosofoaren arabera (2017), orain geure burua usiatzen dugu autoerrealizatzen ari garelakoan; neoliberalismoaren logika zitala da, amaiera gisa erretako langilearen sindromea izaten duena.

“Beharrezkoa da “gela bat norberarena” eta jakitea ezagutzaren eraikuntzari buruzko eztabaida, berez, ekonomia monetarizatuaren bestelako ekoizpen bati buruzko eztabaida dela, munduaren ikuspegiari eta banaketari buruzko printzipioei buruzko eztabaida bat, eta bestelako instituzionaltasun bat irudikatzen proiektuaren parte dela”

Gaur egun beti egin ahal den guztia ez egitearen larritasunarekin bizi gara, eta arrakasta lortzen ez badugu errua geurea dela sentitzen dugu. Erreprezio hori ez dator dagoeneko beste batzuegandik, geu gara, eta, horrenbestez, norberarekiko alienazio hori ondoez fisiko eta emozional bihurtzen da, hau da, depresioa, anorexia, gehiegi jatea edo kontsumoko edo aisialdiko produktu gehiegi kontsumitzea. Ganteko Unibertsitateko Katia Levecquek eta bestek egindako ikerketa batek (2017) dio doktoregai diren pertsonen antzietatea edo depresioa izateko duten probabilitatea sei bider handiagoa dela biztanleria orokorrarena baino: doktoregaien %39 depresio moderatuko edo larriko soslai baten barruan dago, biztanleria orokorraren %6 bezala. Emaitzen arabera, doktoregaien %41 etengabeko presiopean sentitzen zen, %30 deprimetuta edo zorigaitzoko eta %16 ezgauza. Ondorio nagusietako bat izan zen sintomen garapenak ez duela zerikusirik doktoregoa egiten den irakasgaiarekin, berdin dio zientziak, gizarte zientziak, giza zientziak, zientzia aplikatuak edo zientzia biomedikoak izan. Ez da gauza bera gertatzen generoarekin, doktoregoa egiten duten emakumeek arazo psikiatrikoak izateko dituzten probabilitateak gizonenak baino %27 handiagoak baitira. Azkenik, ikaslearen osasunean eragina duen faktore garrantzitsu bat tesi zuzendaritza mota da, eta egiaztatu zen doktoregoko ikasleen osasun mentala hobea zela tesi zuzendariak ezar dezaketena eta ezartzen duten autoritate eta botere rola zalantzan jartzen zuen zerbait inspiratzen zien lidergoaren zutenean.

Baina ezin gara argazki hain atsekabegarri horrekin geratu, Jone. Zer erresistentzia-estrategia gara ditzakegu borrokatzeko eta Unibertsitatea bizitzeko eta pentsatzeko beste logika batzuk eraki ahal izateko?

Jone Martínez-Palacios. Arrazoia daukazu esaten duzunean bizkor jausi gaitzkeela ezkortasun paralizatzaile batean. Hortik irteteko, nik ikusten dudana moduan, estrategiek hiru puntu har ditzakete kontuan.

Lehenik, norberaren posizioaren ezagutza izatea. 1966an, Pantera Beltza Alderdiak (PPN) adierazi zuen, “PPNren 10 puntuen programa” deritzonaren barruko 5. puntuan: “Hezkuntza prestua nahi dugu gure jendearentzat, gizarte iparramerikar honen izaera gainbeherakoa agerian jarriko duena. Gure benetako historia eta gaur egungo gizartean dugun rola erakutsiko digun hezkuntza bat nahi dugu. Sor dezagun gure jendeari bere burua ezagutzeko aukera emango dion hezkuntza sistema bat. Ez baldin baduzu zeure burua eta gizartean zein munduan duzun posizioa ezagutzen, beste ezer ezagutzeko aukera gutxi izango duzu”. Ildo berean, Bourdieuk esaten zuen: “ikasle eta ikerlari baten ahalmen zientifikoak ezarritako hierarkietan okupatzen duen posizioaren ezagutzaren *cursumak* kutsatuta daude beti” (2000:14). Bi erreferentzia horiek auto-analisiak ekintza kolektiboa bideratzeko duen garrantzia erakusten digute.

PPNk Hezkuntza-Gizartea harremanari erreferentzia egiten baldin badio zeure posizioaren ezagutza errazteko, Bourdieuk posizio horrek arlo akademikoaren barruan “produktuen” sendotzean duen garrantziari erreferentzia egiten dio. Bi kontuek existentziako baliabide material eta sinbolikoak eskatzen dituzte. Beharrezkoa da “gela bat norberarena” eta jakitea ezagutzaren eraikuntzari buruzko eztabaida, berez, ekonomia monetarizatuaren bestelako ekoizpen bati buruzko eztabaida dela, munduaren ikuspegiari eta banaketari buruzko printzipioei buruzko eztabaida bat, eta bestelako instituzionaltasun bat irudikatzen proiektuaren parte dela.

Bigarrena, eskuzabaltasun solidarioa praktikatzeko, *ataraxia* kolektiboa, komunitateranzko oientabidea galdu gabe esperimintatzea. Instituzionalizazio horrek irauten du onuragarritzat jotzen jarraitzen dugunarekiko *interesa* mantentzen dugulako, gaureraren aldeko *pultsio* bat. Adibidetzat har dezagun JCR (Journal Citation Reports, kalitate zientifikoaren ebaluazio agentziek gehien ezagutzen eta balioesten duten kalitate indizea). Kritikoak izan arren, tresna horrekin indexatutako aldizkarietan argitaratzeko *interesa* daukagu. Adrenalina esperimintatzen dugu JCR-ak metatzaren ondorioz. *Interes* hori interes orokor edo abstraktu bat baino



gehiago da, Bourdieuk *illusio* deritzon hori da: "jokoari eta haren gorabeheri buruzko interesa. Arlo bakoitzak bere *illusio* mota espezifikoak sortzen du (...) zeinak eragileak beren ezaxolatasunetik ateratzen dituen eta arloko logikaren ikuspegitik begiratuta pertinenteak diren disposizioak egitera eraman eta bultzatzen dituen, garrantzitsua zer den bereiztera axola ez zaidanarekiko oposizioan (...) *illusioa* joko baten funtzionamenduaren baldintza da, joko horren produktu ere izanik aldi berean (1995:38). Kontzeptu horrek aukera ematen du esplizitu egiteko jokalarien aldetik jokoarekiko atxikimendurako indar bat dagoela, zeinak arloak bere arauekin irautea ahalbidetzen duen eta haren mugen iraunkortasuna azaltzen duen. Horrenbestez, eskuzabaltasunarekin modu kolektibo eta solidarioan esperimintatzea iradokitzailea izan daiteke. *Illusioa* loka-puntuari jartzeak, akaso, idazteko, pentsatzeko, elkarrekin harremanak modu osasuntsuan izateko aldarrikatzen dugun baretasuna emango digu. Izan dezake zeri-keririk guztientzako *ataraxia* praktikatzearekin (baina ez modu eskapista eta indibidualistan), he-leniar filosofiako eskola batzuek izatearen asal-dakaiztasunari eta oreka emozionalaren bilaketari deitzeko aldarrikatzen zuten egoera hori. Egoera horretan arloko arauak eta horietatik eratorritako menderatzea bigarren plano batean geratzen dira ezaxolatasunak urtu egiten dituelako.

Hirugarren puntua biografia feministak ikastearekin eta gizartean eta Unibertsitatean egoteko ereduarekin eta forma kritikoak ageriko egitearekin lotzen dut. Eskuzabaltasun hori nola praktikatu daitekeen ikusteko helburuarekin, beste emakumeek nola egin zuten jakiteko xedearekin, bestelakoak egiteko ereduaren egarria asetzeko behararekin, ez-aditutzat, feministegitza, militantegitza, objektibotasun gutxikotzat jotzen diren erregistroekin, modu partikularrean baina beti kolektibo denari, komunitateari, begira entrenatu daitezkeen estrategiak lantzea interesatzen da. Forma bat emakumeen biografien eta egunkarien irakurketa kolektiboa izan daiteke. "Autokontzientzia" taldeen berreskurapena Akademian. **Eta zuk, Itziar, zer estrategia azaleratuko zenituzke?**

**Itziar Gandarias Goikoetxea.** Komentatu duzun azken strategiaren ildoan, lehenik, uste dut apustu egin behar dugula, muturreko indibidualtasun garai hauetan, eraikuntza kolektiboaren alde, gu biok egiten ari garek ariketa honetan bezala. Ego akademizisten aurrean, presazkoa da ezagutzaren kolektibizazioa, jabeagoan eta copyrightean oinarritutako

“Ego akademizisten aurrean, presazkoa da ezagutzaren kolektibizazioa, jabeagoan eta copyrightean oinarritutako logikaren kaltetan”

logikaren kaltetan. Elkarrizketa-praktika horrek gure ezinegonak eta desadostasunak partekatzeko espazio kolektiboak srotzea ere eskatzen du. Ikerketa praktika politikotzat jotzen baldin badugu, presazkoa da gure ezinegonak politizatzea laguntza komunitateak sortzeko. Irtenbide indibidualek gero eta arrakasta gutxiago izango dute, desafioak eta osasunak kolektiboa dena eskatzen dute. Adibidez, Elena Casadok proposatzen dituen "gona-mahaiak" eta gisako espazioak sortzea, non partekatu, konfiantza eta segurtasunean oinarrituta, gure lotsak, erruak, inperfekzioak, zalantzak, akatsak, tristeziak eta are gure "ez dakigu dena" guztiak ere.

Bigarrenik, (auto)desobeditzeko eta geure gorputzak entzuteko praktikak sortu beharra daukagu; gorputz bihurtu geure ikerketak geure gorputzetan txertatutako produktibitate-praktikak desikasteko. Presazkoa da automatismo produktibistak eta zurruntasun akademikoak deskonfiguratzea, berezotasuna berreskuratzeko eta idazteko, narratzeko eta ikertzeko bestelako modu batzuk esperimintatu ahal izateko, artikulua akademikoaren logika hertsatutik harago.

Hirugarrenik, funtsezko estrategia da idazketaren eta ikerketaren plazera berreskuratzea. Zuk, Jonek, aipatu dituzun gogaitasunaren eta nazkaren aurrean, plazera praktika iraultzailea da mundu akademikoan. Gozamina berreskuratzea, egiteagatik egitea egin behar delako egitearen ordez, helbururik gabeko noraezak... Bestelako Unibertsitate bat eraikitzea hurbiltzen gaituzten bideak dira. Ikerketa lanaren artisautza berreskuratu, azken finean, hitzen langile gisa dugun ikerkuntza lana jaregin.

Azkenik, presazkoa da hibridotasunaren aldeko apustua egitea erresistentzia espazio gisa. Aktibismoaren eta ikerketaren arteko mugan dauden espazioak okupatu eta aldarrikatzea, esploratzeko eta lantzeko lekuak dira. Trinh Minh-hak dioen bezala (1991:218): "Gure lana ahal bezain urrun bultzatu behar dugu: mugetarantz (...) ertzak bizilekutzat hartuz, mugaren alde batera edo bestera erortzeko arriskua onartuz etengabe, muga horiek desegiten, berregiten eta eraldatzen ditugun aldi berean". Muga

“ Interseksionalitatea tresna indartsua iruditzen zait Unibertsitatea-Gizartea lotura sendotzeko ezagutza nabarmengarri bat pentsatzeko ”

horiek berrasmatzeko, gogoetazaletasun femeninoak giltzarri den tresna bat hartzen du, ez baitu aski ikerketa orotan sartutako boterea ikertzea, eta horrez gain beste modu batez ikertzeko ahalegin bat ere bada, ikerketa metodo tradizionalak zalantzan jarriz eta dilema etiko-politikoak planteatuz honako gai hauekin lotuta: Nola iker dezakegu gure parte-hartzaileekin menderatze harremanak erreproduzitu gabe? Nola ekoitzi emantzipatzaileak izango diren ikerketak? Nola lot dezakegu ikerketa ekintza politikoarekin?

**Ikuspegi horretatik begiratuta, Jone, zer iritzi duzu interseksionalitateaz Unibertsitatea-Gizartea berriz pentsatzeko tresna analitiko eta politiko gisa?**

**Jone Martínez-Palacios.** Aipatu ditugun estrategiak kontuan hartuta, interseksionalitatea tresna indartsua iruditzen zait Unibertsitatea-Gizartea lotura sendotzeko ezagutza nabarmengarri bat pentsatzeko. Uste dut errealitate sozial konplexuen aurrean, konplexutasun hori ulertzeko doitutako marko interpretatiboak eta tresna analitikoak behar ditugula. Maxima horrekin, interseksionalitatea tresna heuristikotzat daukat. Heuristikoa, lagunduko digulakogaur egun arlo akademikoa egituratzen duten bidegurutzeek zertaz hitz egiten duten jakiteko, bai eta zer erresistentzia ari diren dagoeneko bidegurutze horietan eragiten. Horrela, tresna gisa, Patricia Hill Collins Feminista Beltzak azaltzen duen zentzua nabarmenduko nuke: 1) desberdintasun sozialari aurre egin nahi dio, 2) botere harremanen garrantzia uzten du agerian, 3) gizabanakoen eta egituren arteko errelazionalitatearen ideia berreskuratzen du, 4) testuinguru sozialaren garrantzia gogorarazten du, 5) errealitateak errealitate konplexu gisa ulertzen ditu, eta ez pentsamendu sekuentzial batetik eratorritako fenomeno gisa -zapaltzaile eta zapaldu izan baitaiteke aldi berean, eskala eta botere arlo askotan- eta 6) justizia soziala eskatzen du.

Tresnak eskaintzen dituen aukera guztien artean, Collinsek “menderatze matrizeari” buruz proposatzen duena interesatzen zait. Matrizearen figurarekin, Collinsek mugitzen garen eremu guztietan (kulturala, biografikoa, politikoa, legala eta abar) gure es-

perientzia bakoitza egituratzen duen moldeari egin nahi dio erreferentzia. Matrize tipografikoez bezala, menderatze matrizeak ere marka bat uzten du (tintarengatik ikusgarria, indarrarengatik ikusezina). Marka horren ontologia ezin da azaldu menderatze-ardatzen interkonexioaz baizik; gurutzatuta, ardatz horiek beren arrastoa egiten dute, egituratu egiten dute, egitura dira eta egituratu egiten ditugu.

Tresna horren aktibazioaren adibide batek, aurrerago eman dituzun datuen arabera, eraman gintzake menderatze matrize zehatz bati buruz hitz egitera Espainiako Estatuaren kasurako, matrize horretan arraza, adina, generoa, irakasgai akademikoa eta klase soziala gurutzatzen direla. “Menderatze matrizeak” aukera emango luke ikusteko gizabanakoei, auzoei, komunitateei, gizarteei, Estatuei eta abarri eragiten dieten sistema-gurutzaketak, eta aitortzeko, horrenbestez, ezagutza-erakuntzako prozesu batean parte hartzen duenak, hori proiektatzen duenak eta diseinatzen duenak menderatze matrize bakan batek zeharkatuta egiten duela hori (horrek ez du esan nahi, ordea, horien arteko ulermenik ez dagoenik). Errealitate horren existentziarekin harremana duten aukerak modu gogoetatuan irudikatzeak eskatzen du jakitea matrize hori modu askotan agertzen dela ere, gutxi-asko naturalizatuak, bere-ganatuak, eta arlo bat baino gehiagotan. Halako moldez non ulertuko genukeen *habitusari* forma ematen dion matrize bakoitzari forma ematen dion *habitusa* (gorputz-disposizio egindako egiturak). Modu orokorragoan, gorputzari hitz eginaraziko genioke hura egituratzen duen matrizeari buruzko bere disposizioen bidez eta matrizea hizketan jarriko genuke bere gorputza bere mugimenduen bidez antolatzen duen moduari buruz. Nazkari hitz egin ahal izango genioke.

**Itziar, eta zuk nola uste duzu lagun diezagukeela interseksionalitateak gai honi buruz pentsatzen?**

**Itziar Gandarias Goikoetxea.** Uste dut interseksionalitatea oso tresna baliagarria dela geure buruari galdetzeko nola eragiten duten gure ikerketetan menderatze sistemek. Interseksionalitatea interpelazioaren eta galderaren praktika etengabea da, ikus daitezkeen botere harremanei buruz baina baita ikusezinei buruz ere. Inteseksionalitateak, adibidez, geure buruari honako hau galdetzera gonbidatzen gaitu: zer egile irakurtzen ditugu? Nortzuk erreferentziatzen ditugu? Zer bestelako subjektu ez daude gure ezagutza mapan? Zergatik eta zertarako ikertzen ditugu subjektu mendekotuak? Zer paper dute ikerketen barruan subjektu edo objektu gisa?

Ikuspegi horretatik begiratuta, interseksionalitatea bitarikotasuna eta kategorien homegeneizazioa zailantzan jarri gure ikerketetan erabiltzen ditugun kategoria analitikoak ezegonkortzen dituen tresna bat ere bada (adibidez: gizon/emakume; Iparra/Hegoa; femeninoa/maskulinoa; garapena/azpigarapena, besteak beste); horrek eragin deshumanizatuak ditu subjektibitate batzuegan, haien errealitatea eta haien ezagutza kokatuak ez ezagutzearen ondorioz. Interseksionalitateak kategoria itxi, dikotomiko eta homegeneizatuak kontzeptuaren kaltegarritasunaz ohartarazten du, eta hortik menderatze harremanen erreproduzioari laguntzen zaiola.

Azkenik, interseksionalitatea gure begirada zabaltzeko ariketa bat da, arreta fokua botere eta menderatze harremanen situazionalitatean eta kontingentzian jarri. Horrela, interseksionalitate kokatua gorputz markatuen klabeen pentsatzetik fokua gorputzek botere harreman zehatzetan azalertzeko duten moduetan jartzera iragango litzateke. Analisisirako objektua ez lirateke jada hainbeste menderatze-ardatz horiek ekoiztiko gorputzak, nola gorputz horiek ekoizten dituzten bereizketa-praktikak.

Eta elkarrizketa hau den esperimendu gisa, Hegoaren Jardunaldiak elkarrizketarako egindako gonbita aitzakiatzat hartuta hasitakoa, ez dugu amaitu nahi ondorio erabatekoekin, ezta gogoeta hanpatsuekin ere. Hortik baino gertuago guztiz kontraktatik. Unibertsitatea-Gizartea lotura berriz pentsatzeko elkarrekin egindako ispilu-ariketa honen asmoa da galdera gehiago irekitzea eta ezinegon berriak eragitea irakurleek hemen adierazitako hari bati hel

diezaioten eta aurrera jarri dezaten elkarrizketaren bidean ezagutza kritiko, emantzipatuak eta kolektibo baten sorkuntza-praktika gisa.

## Erreferentzia bibliografikoak

Bourdieu, Pierre (1995). *Las reglas del arte*. Anagrama: Bartzelona.

Bourdieu, Pierre ([1997] 2000). *Los usos sociales de la ciencia*. Nueva Visión: Buenos Aires.

Bourdieu, Pierre (2013). "Séminaires sur le concept de champs, 1972-1975" Actes de la Recherche en Sciences Sociales 2013/5, 200 zenbakia, 4-37. or. (Patrick Champagne-ren sarrera).

Han, Byung-Chul (2017). *La sociedad del cansancio*. Bigarren argitalpen emendatua. Herder Editorial.

Igareda, Noelia, & Bodelón, Encarna (2014). "Las violencias sexuales en las universidades: cuando lo que no se denuncia no existe". Revista Española de Investigación Criminológica: REIC, (12), 1-27.

Levecque, K., Anseel, F., De Beuckelaer, A., Van der Heyden, J., & Gisle, L. (2017). "Work organization and mental health problems in PhD students". Research Policy, 46(4), 868-879.

Trinh, T. Minh-Ha (1991). *Framer framed*. New York: Routledge.

Weber, Max ([1919] 1967). *El político y el científico*. Alianza: Madrid.



Joseba Sainz de Murieta utzitako irudia.



Nortzuk gara

• La Mundial

Hemen aurkituko gaituzue

• [www.lamundial.org](http://www.lamundial.org)

## La Mundial. Sormen politikoa lantzen duen kolektibo bat, eraldaketa ekosoziala helburu

2015ean jaio zen La Mundial kolektiboa; helburua: hausnartzea, aztertzea eta komunikazio politikoa jorratzea, betiere, gizartea eraldatu, pertsonen eskubideak zabaldu eta bizitzaren iraunkortasuna bermatu nahian. Espazio independentea izanik, ez du inongo loturarik ez zorrik instituzioekin, eta begirada eta pentsamendu libre eta kritikoa egin nahi dio gaur egungo errealitateari, zeinak gehiegitan ukatzen baititu jendearen bizitza eta eskubideak.

Bizitzaren iraunkortasunari mehatxu egiten dioten askotariko arriskuei erantzuten dieten eta ordena sozial, politiko, ekonomiko eta kulturala sakonki eraldatu nahi duten hainbat mugimendu eta dinamikekin loturiko jendeak osatzen du taldea. Gure iritziz, eraldaketa horiek gertatuko badira, prozesu politiko baten ondorioz gertatuko dira, zeinak arrakalak zabalduko baititu gaur egun jendearen gehiengoa esplotatzen, baztertzen eta kanporatzen duten joerekin. Prozesu politiko horrek herritarren parte-hartzea zabaldu behar du, instituzioen politikatik harago, derrigorrean eskatu eta praktikan jarri behar ditu giza eskubideak, bizi-proposamen bat egin nahi badu, eta behar adina eraldaketa sustatu behar du, indarrean diren garapen-eredu ez-iraunkor eta patriarkalak eta horietatik eratorritako menderakuntza-moduak gainditzeko.

Asmo horiek zehazki nola mamitu behar ditugun guztiz jakin gabe, edo, guk planteatu ohi dugun moduan, lan egiteko modu guztiei irekirik, garbi geneukan hasieratik zer osagaik ardaztuko zuen gure jarduna, izan hausnarketa-prozesu, azterketa edo komunikazio politiko: eskubideak zabaldu eta bizitzaren iraunkortasuna bermatu nahi duen eraldaketa-prozesu orok zabaldu egin behar ditu

errealitate gero eta konplexuago bat ulertzeko espazioak. Hortaz, horixe da gure motibazio nagusietako bat: munduaren konplexutasuna argitzen lagundu nahi dugu, hausnarketaren eta analisiaren bitartez, formazio-prozesuetan parte hartuz eta komunikazio politikoa jorratzen duten egitasmoak landuz. Hori guztia diogu, bai baitakigu mundua interpretatzeko eta eraldatzeko prozesuak ezin direla elkarrengandik bereizi, *Nociones Comunes* taldeak *Hariak*-en aurreko zenbakian dioten moduan.

Eraldaketa soziala propio bilatzen duen eta gure jarduna elikatzen duen ezagutza eta jakintzen arteko elkarrizketa horrek zenbait auziri erantzun behar dio. Gero eta interdependenteagoak dira errealitatea bera eta askotariko fenomenoak (sozialak, politikoak, ekonomikoak eta ingurumenarenak); horregatik, uste dugu ezagutzak izan behar duela diziplinartekoa eta diziplinez haraindikoa, eta mugez harago joan. Hainbat diziplinaren eta errealitatea ulertzeko ikuspunturen arteko solasa bultzatu behar du, eta, horrez gainera, jakintza eraikitze moduen eta ezagutzen arteko zubiak eraiki behar ditu.

Era berean, gaur egungo errealitatea nazioez haraindikoa da, maila globalaren eta lokalaren artean eratu diren harreman inter-dependente sakonen ondorioz; horregatik, arretaz erreparatu behar diegu errealitateko fenomenoaren artean dauden loturei. Gure kolektiboa mundu-mailakoa da, hain zuzen ere, horrelaxe ulertzen dugulako (eta horrela eraldatu nahi dugulako) errealitatea: iruditzen zaigu *mundu-mailan* zabaldu diren dinamika, egitura, botere-harreman, iruditegi, diskurtso eta abarren emaitza dela errealitatea.



Nacho Martínez utzitako irudia.

Abiatu ginetik hiru urte joan diren honetan, bi ildo nagusi jorratu ditugu, betiere, sarean lan eginez eta hainbat eraldaketa-egitasmo kolektibotan parte hartuz: ikerketa-lana eta komunikazio politikoa.

Ikerketa-lana elikatzeko, askotariko begiradak hartu ditugu, eta saiatu gara jakintza, esperientzia eta ezagutza-modu desberdinekin solas egiten. Horretarako, ikerketa-prozesuak egin ditugu bi eratako bidaideekin: unibertsitatearekin loturik dauden kideekin –betiere, ezagutza zientifikoaren ekoizpenari begirada kritikoa eskaintzen diotenak– eta herri jakintza edo praktikatik abiatutako ezagutza lantzen duten beste batzuekin. Ikerketa-prozesu horien bidez hauxe lortu nahi genuen: giza eskubideak eta bizitzaren iraunkortasuna ekintza kolektibo eta indibidualaren erdigunean jarri nahi duten zenbait administrazio eta talderen praktika politikoa eta antolakuntza-moldea aztertu eta zabaldu.

Komunikazio politikoaren eremuari helduta, bi euskarrirako irratsaio bat jarri dugu martxan: batetik, "La Mundial en M21radio" irratsaioa ematen dugu astero Madrilgo udal irradian, eta, bestetik, "La Mundial Ambulante" izeneko saioan, estudioa utzi eta kalera jotzen dugu, gizarte-antolakundeen topaketetan parte hartzeko eta haien berri emateko, betiere, gaur egun indarrean den garapen-ereduari erantzuna emango dioten proposamenen bila. Komunikazio-egitasmo horren bitartez, gure herri eta hirietan gertatzen denari buruzko analisi eta kontakizun partekatuak eraiki nahi ditugu askotariko eragileekin eta begirada global batetik abiatu.

Irratiko proposamenak begirada kritikoa bat eskaintzen dio, ikuspuntu global batetik, gaur egungo

munduari, gure munduak herritar asko bazterten baititu, kanporaketak eta ezberdintasuna sortzen dituen garapen-eredu batean oinarritzen baita, arriskuan jartzen baitu bizitzaren iraunkortasuna, eta eraldaketa-proposamenen aurrean guztiz ixten den nazioarteko ordena asimetriko batean egituratzen baita. Errealitate horren aurrean, munduko hamaika bazterretako ahotsak ekarri ditugu irratsaioa –besteak beste, Susan George, Saskia Sassen, Helena Maleno, Lol King, Santiago Alba Rico, Amador Fernández, Ekologistak Martxan, PAH, Vía Campesina, Kaleko Kazetarien Sarea, Zorraren, Garapenaren eta Eskubideen Latinoamerikako Sarea–, zeintzuek buru-belarri jarraitzen baitute borrokan hainbat arlotan –kulturan, gizartean eta politikan–, bestelako mundu bat eraikitzeko asmoz: mundu zuzen, bidezko, iraunkor eta gizatiarrago bat.

Gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa zaigu iraunkortasunaren eta justiziaren alde borrokatzea, egoera oso larria baita; hilurren dagoen garapen-eredu honek maila askotako krisia ekarri du, eredu kapitalista neoliberalaren ondorioz. Denbora agortzen ari zaigun honetan, jokoan daude jakintza kritikoa, askotariko ezagutzen arteko solasa eta bizitzaren iraunkortasuna eta eskubideak erdigunean jartzen dituzten kontakizun eta praktiken eraikuntza. Hori guztia jakinik, eta kontuan harturik maila globalean ari dela hori dena gertatzen, La Mundial-eko kideok lanean jarraituko dugu, ekarpenak egiteko asmoz errealitatea maila ekosozialean eraldatu nahi duten erantzun kolektiboak.

La Mundial



Nortzuk gara

• Fondo de Acción Urgente  
para América Latina y el Caribe

Hemen aurkituko gaituzue

• [www.fondoaccionurgente.org.co](http://www.fondoaccionurgente.org.co)

## Mugimendu feministekin eta era guztietako emakumeen mugimenduekin batera ibiliz Latinoamerikan eta Kariben

Premiazko Ekintzen Latinoamerika eta Kariberako Funtsa -FAU AL- eskualde hartako emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak indartzeko konpromisoa hartu duen Funts feminista da. Era guztietako emakumeen giza eskubideak babesten eta sustatzen laguntzen du, eta haien erakundeak indartzen ditu, bitarteko hauek erabilia: Erantzun Azkarreko Laguntzak (ARR)<sup>1</sup>, elkarlaneko ekimenak, babes erabatekoa eta zaintza feminista, itunak sortu eta indartzea, eta ezagutza ekoiztea. FAU-AL funtsa, Premiazko Ekintzen Funtsetako Partzuergoaren partaide legez, Bogotan (Kolonbia) instalatu zen 2009an, aurreikusi gabeko egoerarako baliabide bizkorak helarazteko, inguruko mugimendu feministak eta askotariko emakumeek egindako eskaeren aurrean.

Feminismoa da gure apustu politikoaren oinarria, nola banakako mailan, hala instituzio mailan. Gizarteko errealitatearen baitan, ulertzeko eta geure burua kokatzeko berariaz landutako modu bat da guretzat, eta indar sortzaile eta mugiarazlea orobat, bai banakako arloan, bai kolektiboan. Bidegabekeria sozialaren sistemak eraldatzeko ahala du, baita, gure eskualdean nahiz mundu osoan, emakumeen bizitza historian zehar markatu duten indarkeriak eta desberdintasunak eraldatzeko ere.

Gure jarrera feministatik, emakumeen eta giza eskubideen defendatzaileen autonomia eta autodeterminazioa hartzen ditugu gure jomuga politikoen erdigunetzat, eta, era berean, horiek dira gure erakundeetako eginkizunak gidatzen dituzten

oinarri etikoak. Jarrera horretan oinarrituta lan eginez, aktibistekin jartzen gara harremanetan, eta haiek egiten dutena eta haien subjektu politiko izaera aitortzen dugu, ez haien biktima edo onuradun izaera. Giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen istorioak, ezagutzak eta esperientziak balioztatu, bistaratu eta indartu nahi ditugu, eta, emakumeak edo genero ez binarioko pertsonak izateagatik, haien aktibismoak dakartzan arriskuen berariazkotasuna aitortzearen eta euren borroka historikoetako erresistentziaren alde ekin.

Emakumeen eta aktibisten esperientzien konplexutasuna ulertzen dugu; hainbat eratako bidegabekeria, bazterkeria eta desberdintasun formek taxutu dituzte. Horiek ez dira, soilik, generoan oinarritzen; hauetan ere oinarritzen dira: klase soziala, etnia-arrazaren markatzea, adina, jatorri geografikoa eta gaitasuna. Aditze-ariketa enpatiko erradikaletik abiatuta, FAU-AL da herrientzat, emakume indigenentzat, afrikarren ondorengoentzat eta nekazariantzat, babes kolektiboko laguntzak eman dituen lehenengo funtsa, premiak eta ekimenak askotarikoak direla ulertuta. Aktibisten erresistentzia formen aberastasuna baloratzen dugu; euren bizipen partikularretatik abiatuta, zapalkuntza-sistemei, aldi berean, aurre egiten diete.

Gainera, geure burua feministatzat jotzeak jarrera kritiko eta autokritiko iraunkorra izatea dakar, etengabe bilatzen duena ikastea, eta praktika hierarkikoak zein gure artean eta beste batzuekiko boterea gauzatzeko modu kaltegarriak deseraikitzea.

Sortu zenetik, FAU-AL funtsa gidari izan da babes erabatekoaren eta zaintza feministaren inguruko gogoeta egiten, antolakuntza-kulturaren atal gi-

<sup>1</sup> Erantzun Azkarreko Laguntzak (ARR) finantziario malguko eta epe laburreko eredu bakarra dira, Premiazko Ekintza Funtsak sortuak: <https://fondoaccionurgente.org.co/es/que-hacemos/apoyos-de-respuesta-rapida>

sa txertatuz. Programa arteko ikuspegi berritzaile batetik abiatuta, FAU-AL funtsaren baitan, ikasi ahal izan da premiazko ekintzari emandako erantzunarekin batera praktika aktibistak berrikusi behar direla ezinbestean, emakume defendatzaileen bizitza eta haien mugimenduak zaintzeko prebentzio-estrategiaren baitan. Ildo horretan, gure apustu etiko politikotzat zehaztu dugu Aktibismo Iraunkorra.

Gure iritziz, mundua ikusteko, bizitzeko eta eraldatzeko era bat da zaintza. Ideia eta mundu-ikuskerara ahaltsua da, taxutu egiten baititu jasangarritasuna, hobeto egotea, enpatia, elkarrekiko erantzukizuna eta gozamina. Horiek guztiek gidatzen dute gure eginkizun instituzionala, nola kanpoan, hala barruan; ez izan behar bezala, baizik eta etengabe eraikitzen ari den eguneroko apustu gisa.

Zaintzaren *ethos* feministan kokatu gara, bizitzari eusteko emakumeei historikoki ezarri izan zaigun zama auzitan jarritz. Izan ere, zama-ezartze hori berragertu egiten da aktibismoa zein giza eskubideen, naturaren eta ingurumenaren defentsa bizitzeko era kaltegarri, sakrifizioko eta hierarkikoetan. Gure lana egiteko modu arretatsuaren alde apustu eginez, bizitza jarri behar dugu erdi-erdian, hau da, emakume defendatzaileen bizitzari eta osotasunari eman behar diogu lehentasuna, eta ongi bizitzeko, gozatzeko eta duintasuna izateko baldintzetan gauzatuko den aktibismoan sinetsi, ongizate pertsonala eta kolektiboa kaltetu gabe.

Zaintza arlo pertsonalean -norbere burua zaintzean- eta arlo kolektiboan -elkar zaintzean- gauzatzen da, eta horietan lau dimentsio josten dira elkarrekin: fisikoa, emozionala, espirituala eta digitala. Era berean, esparru sozial zabalago batean ere ulertzen dugu zaintza, eta 'zaintzaren gizarte' edo *herritarizate* baten<sup>2</sup> aldekoak gara, bizi-forma guztien arteko interdependentzian eta konexioan oinarrituta. Iraun ezin duen eredu ekonomiko, politiko eta hegemoniko batekiko jarrera kritikoa da. Eredu hori merkatuan oinarrituta baitago, eta emakumeen gorputzen nahiz naturaren esplotazioari esker mantentzen da.

2 Amaia Perez Orozcok sortutako esapidea (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Madril: Traficantes de Sueños.



FAU-AL utzitako irudia.

Zaintzak egituratzen du bai giza eskubideen eta lurraldearen defendatzaileen erabateko babesa jorrazteko gure modua, bai eta talde gisa dugun geure buruaren babesa ere. Ikuspuntu horretatik begiratuta, honela irudikatzen dugu babesa: egunerokotasunean gauzatzen diren praktika, ohitura, neurri eta hitzarmen multzo artikulatu bat, elkarrekiko erantzukizunean eta gure nahiz inguruan ditugun izaera zaurgarria aitortzean oinarrituta.

Zaintzaren *ethos* feministari esker, ezagutu ahal ditugu ekintzetatik nahiz aktibismoa bizitzeko eta ohiturak eraldatzeko ahalmen pertsonala eta kolektiboa onartzetik eratorritako arriskuak. Ikuspegi hori kontrajartzen zaio bai, emakumeak edo genero ez binarioko pertsonak izateagatik, emakume defendatzaileen gorputzei eta bizitzei eragiten dieten elementuak aintzat hartzen ez dituzten babesarekiko hurbiltze klasikoari, eta bai ardatza banakakotasunean kokatuta duen ongizateari ere. Sarrera horrek aukera ematen digu prebentzioan pentsatzeko, eta premiazkoarekiko erantzuna -gure zigilua eta eginkizun instituzionala, hain zuzen- artikulatzeko, aktibismoan eta ekinbide feministan egunerokoa, beharrezkoa, sormenezkoa eta desiratua denarekin.

Gure iritziz, mugimenduak iraunkorrak izan daitezten, geure burua, kolektiboa dena eta komunitarioa dena zaintzeko aukera ematen diguten espazioak, praktikak eta harreman moduak aitortu behar ditugu ezinbestean. Hegoaldeko funts feminista eta aktibista garen heinean, beste emakume batzuekin batera, jarraitu egin nahi dugu zaintza, askatze, poz eta sendatze bide hau josten.

Fondo de Acción Urgente para América Latina  
y el Caribe, Kolonbia



## Arriskurik gabe ezin da ikasi. Arlo formalaren eta informalaren artean

Beste batzuekin lana eginez ikasi egiten da. Bai ekingean eskuratzen diren ezagutzak helarazten direlako (zuzenean edo zeharka), bai era kolektiboan antolatzekeo beharra dagoelako. Hasieratik bertatik, Basurama jende artean eta bestelako jendearekin egiten da. Izatez, berezkoa du ezaugarri hori. Norbere eskuekin eta beste esku batzuekin egiten da lan. Elkarrekin pentsatzen da dena, elkarrekin gauzatzen da dena. Identitate bat badago, bai, baina une oro lekualdatzen doa, etengabeko prestakuntza bat dagoelako, aldi oro ikasten baita zerbait besteekin, besteengandik. Prozesu horretan, ekintza da gakoa; ekintzarik gabe ez dago ikasterik. Eta berekin ekartzen ditu arriskuak, pozak eta desadostasunak. Akats ugari eragiten ditu. "Arriskurik gabe ezin da ikasi"; jarraibide giltzarrietako bat da, bizitzako lehen urteetako hazkunderari buruz osatutako teoria askotan. Akatsik gabe ez da ikasten. Eta akatsa, besteak beste, ez dago hezkuntza formalaren barruan.

Gure egiteko moduak "oso praktikoak" dira, eta hala izaten jarraitzen dute. Materialekin (zaborra, hondakinak, baliabideak...) eta pertsoekin (jendar-teko komunitatea, testuingurua, espazioa) egiten dugu lan. Espazioak eraldatzen ditugu bizitza eraldatzeko. Auzoetan lan egin dugu, abandonatutako hiri-orubeetan, zubietan, parkeetan, eta, azkenaldian, ikastetxeetan lan asko egiten ari gara. Geroztik, joan-etorrian ibili gara, instituziotik kalera eta kaletik instituziora. Aldian behin, prestakuntza formalean murgiltzen gara geure iritziaren arabera (betiere proposamen informal bat esku artean dugula); ekinbide horretan elementu protagonistak direnak –ziurgabetasuna, prozesua, "nola?" galdera eta emozioa– oso nekez lotzen dira hezkuntza arautuarekin.

### *Autoneskolak, autonomiaren Auton-eta -eskolak* komunitate bezala

Hainbat eskala eta testuingurutan espazioak eta inguruak eraldatzen lanean jardun ostean, "eskola" instituziora hurbildu gara: komunitate biziki definitua da (ikasleak, irakasleak, gurasoak, mantentze-lanetako langileak...) eta esanahi berria eman beharreko espazioa (esaterako, hamarkadatan eboluzionatu gabeko espazio komuna da jolaslekua). Ikasteko desira pizten duten inguruak eraikitzea da helburua, eta eginez ikastea: hezkuntza aldatzeko, heziketa gertatzen den espazioak aldatu behar dira.

Metodologia<sup>1</sup> oso soila eta oinarrizkoa da. Ikastetxe bakoitzaren behar eta erritmoetara irekia eta malgua:

- *Jolaslekuko batzordea* osatzen da, Basuramako kideekin eta parte hartu nahi duten ikasle eta irakasleekin. Batzuetan, aita-amak ere bai. Gainerako guztiei informazioa helarazten diete, eta erabakitze-ko gaitasuna dute. Hainbat "parte hartzeko tresna" erabiltzen dira lanerako: jolaslekuko marrazkiak, inkestak, maketak... eta premien nahiz desioen ebaluazioa egiten da horiekin.
- "Ekintza galkorrak" diseinatu eta gauzatzen dira. Espazioaren aldi baterako aldaketak, praktika artistikoaren bitartez. Eta ebaluatu egiten dira. Guztien artean konfiantza lantzeko balio dute (Basuramak ikastetxearekin duena eta ikasleena), proiektuaren jabe sentitzen hasteko (parte hartzeko hainbat gradu). Eta batik bat ilusioa izaten hasteko, espazio ukiezinak eraldatzeari diogun beldurra galtzeko, materialekin entseatzeko, barneratutako jokabideak hausteko.

1 Informazio gehiago, "La Aventura de Aprender" web-gunean argitaratu genuen *Cómo intervenir un patio escolar* artikuluan: <http://laaventuradeaprender.educalab.es/guias/como-intervenir-un-patio-escolar>



- Esku hartzeko tailer txikiak. Unean uneko premiei erantzuteko baliagarriak izanik, alde zuzenetik lortutako material berariazkoarekin edo altzariren bategin osatutako eraikuntza jakin batzuk.
- Premia eta nahi batzuk biltzen dituen izaera iraunkorrago eta konplexuagoko azken esku hartzea. Garrantzitsua da egiazko eraldatze fisikoak lortzea, kontu guztia teoria hutsean gera ez dadin (frustrazioak).
- Azkenik, jarraitzeko beharra izanik, ikasleek osatutako *Mantentze batzorde* bat osatzen da, eraikitako espazio berriak zaindu, konpondu eta haien eboluzioa eragiteko.

Eskema metodologiko hori bera erabili dugu era beretsuan hamar bat ikastetxetan<sup>2</sup>, eta ikastetxe bakoitzean azken dinamika oso desberdina izan da bata bestearekiko. Oro har, ez da erabat teilakatzera iritsi, eta ebaluatu nahiz hobetzeko ihes gune eta puntu ahul asko ditu.

### Ikastetxea disolbatzea. Erresistentzia hierarkikoak eta beldurrak

Hezkuntza zentro bakoitza mundu bat dela hauteman dugu. Guztiak bat datoz honetan: behar handia dute norbaitek zaindu ditzan eta esaten dutena entzun dezan. Aldi berean, ez dute entzuteko eta kontakizun berriak hasieratik bukaerara bizitzeko denborarik –ez eta espaziorik ere–. Zaila da gatazka konpontzea. Beharrezkoa da esku hartzeko metodologiak zama programatikorik ez ekartzea zentroko langileei eta ikasleei. Horrekin batera, "ikastetxeak" metodologian engaiatu eta disolbatu behar du.

Horrelako proiektu bat gauzatu ahal izateko, ikastetxeko lagun batzuen konplizitatea eta konfiantza behar dira. Ikastetxeetako hierarkia oso indartsua da, eta era horretako prozesuetan oso argi bistaritzen da, eraldatzeko gaitasuna gutxituz. Burokrazia eta kaltearekiko beldurra, ikasleen segurtasunarekiko beldurra eta gurasoen kexa posibleekiko ikara balazta bihur daitezke ikasteko. Beldurren testuinguru horretan, ziurgabetasunak ez du lekurik, eta frustrazioa eragiten du, baldin eta harekin bizitzen ikasten ez bada.

Lan egiten ari garen azken ikastetxeetan Arau Teknikoa jorratzen ari gara, eraikuntza berriak egiaztatu ahal izan daitezen eta legearekiko beldurraren aurkako gudu hori irabazi ahal izan dadin. Baina,

2 Madrilgo Udalaren "Educar Hoy por un Madrid más Sostenible" programaren barruan. Jolastokiak eraldatzeko proiektuak gauzatzen ari gara 10 ikastetxetan.



Basurama utzitako irudia.

araudi murriztaile hori aldatu ahalko da? Beste beldurrak gainditu ahalko dira? Baietz espero dugu.

### Galderak egitean ikasi egiten da, eta ikastea ez da inoiz bukatzen

Ikastetxe horietan hasitako prozesu askok, esan bezala, arazoak dituzte eskolako ikasturtean benetan txertatzeko garaian. Parte-hartzea talde txiki batera mugatu da, batik bat erabakitze fasean, ez hainbeste ekintzako fasean (eraikuntza fisikoa). Erabakiak aldi gehienetan dagoenari eustekoak izaten dira ameslariak baino gehiago. Garrantzitsua da geure buruari galdera batzuk<sup>3</sup> egitea:

- Baldin eta ikasteko eta irakasteko komunitate bat sortu nahi badugu, zein irakaslek, ikaslek eta eragilek dute interesa proiektuan eta zeinek parte hartuko du horretan? Proiektua ikasgaietako curriculumetan txertatzea: nola lotuko dugu prozesua curriculumetan? Eta ez curriculumetan soilik, ikastetxe bertako bizitzara baizik, ikuspuntu erreal (esperientzia) eta administratibo (dokumentu arauemaile guztiei buruz) batetik.
- Metodologia berriak eta espazioa eraldatzea lotu: zer motatako espazioetan gerta daitezke gu pentsatzen ari garen ikaskuntza esperientziak? Nola ekin duden gatazkei, generokoei, sozializatzekei, ordezkari-tzakoei, elkartzekei, zaintzetakoei, espazioak naturalizatu eta berdetzekoei?

Gure ustez, espazio fisikoa eraldatuz, eta eragile batzuekin hitz eginez, hierarkia argirik ezarri gabe erantzukizun onartu eta partekatuekin, galdera horietako asko ireki ahal izango lirarteke.

Basurama

3 Galdera hauek "Pedagogías Invisibles" metodoarekin proposatu ditugu; izan ere, adituak dira galdera pedagogikoak proposatzen.



Nortzuk gara

• Teatro del Barrio

Hemen aurkituko gaituzue • [www.teatrodelbarrio.com](http://www.teatrodelbarrio.com)

## Auzoko Unibertsitatea, aldaketa errealak ahalbidetuko dituzten narratibak birlantzeko espazioa

Auzoko Unibertsitatea topaketarako, eztabaidarako eta kultura historikoaren, ekonomikoaren, politikoaren zein artistikoaren zabalkunderako espazioa da. Auzoko Antzokiaren ekimen bat da, zeinak ikaskuntza politikorako espazio bat eskaintzen duen, gogoeta eta parte-hartze kolektiboetan oinarrituta.

Madrilgo Lavapiés auzo kulturalki emankor eta askotarikoan kokatutako ekimen hau bizi izandako krisiaren sakontasunaren aurrean sortu da, zeinak oso modu desberdinetan eragiten dion gure gizarteari. Eta beti konbentzituta, kontzientzia kritikoa eta herritar moduan mobilizatzeko eta artikulatzeko ahalmena sustatzeko, garai honetako arazo asko berrinterpretatu egin behar direla.

Auzoko Unibertsitatearen abiaburuko hipotesia da teoria eta praktika eskutik hartuta ibil daitezkeela berriro, eta horixe egin behar dutela. Sustatzen dugunok konbentzituta gaude ekintza eraldatzailerako eta bizikidetzarako ideia onak ekoiztea lehen mailako ekintza politikoa dela, konpromisoa eta ardura eskatzen duena, bai eta borroketan eta antolaketan-jardueretan parte hartzea ere.

Herritar mehatxatu gisa dugun identitateari eta gure bizimolde endekatuei beste esanahi batzuk emango dizkieten narratibak birlantzen laguntzeko bokazioz jaio da, baina baita eraldaketa errealerako bide ez diren interpretazio erraz, azaleko eta dogmatikoak eragozteko asmo tinkoz ere.

Auzoko Unibertsitateak, sarrera librekoa, gogoetaren eta sormenaren arteko zubi esanahiz beteak eraikitzea ere bilatzen du, intelektualen eta artisten arteko hurbilketa bultzatuz, haien zereginen berrikuntza

ahalbidetzeko. Sustatzen dugunon ustez, pentsamenduko erakunde akademikoaren eta ekintza-eskari sozialen arteko urruntzea gertatu da. Uste dugu, halaber, kultura, komunikazio eta jarduera kritiko eta gogoetazko gisa, estutzen joan dela, entretenimenduko ikuskizun huts bihurtu arte. Azken batean, politikariek, adituek eta kultura-sustatzaileek egiten dutenaren ikusle huts bihurtu gara herritarrok.

Auzoko Unibertsitateak zirriborratutako espazioan, herritarrok adituekin eta artistekin batera diseina ditzakegu pentsamenduzko eta ekintzazko helburu komunak. Saio hauek<sup>1</sup> ezagutzaren eta kulturaren munduko pertsona ezagunak igaro dira, jatorri instituzional zein geografiko oso desberdinetakoak: irakasleak, ikerlariak, errealitatearen alderdi jakin batzuen lekukoak, eta herritarren gogoetazaletasuna, kontzientzia-hartzea eta eraldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta kulturala handitzeko ezagutza baliagarria transmititzeko ahalmenaz hornituak. Dena dela, benetako protagonistak herritarrek dira, ekintza politiko kolektiborako kultura kritikoa errealitatearen igorle eta hartzaile gisa.

Bi ardatz nagusi dituzte, txandakako astelehenetan, herri unibertsitate honetan lantzen diren gaiak: historia eta ekonomia, baina biak ikuspegi zabal, kritiko eta solidario batetik begiratuta.

Historiako ikastaroak tresna kritikoa eman nahi dizkigu, narratiba ofizial edo ezarritakoekiko alternatiboak diren iraganaren interpretazioak

1 Auzoko Unibertsitatearen YouTube kanalean, denbora honetan guztian izan diren saioak ikus daitezke: <https://www.youtube.com/user/TuTeatroDelBarrio>



Teatro del Barrio utzitako irudia.

eraikitzen modu kolektiboan lan egin ahal izateko. Uste dugu, orainak bezala, iraganak hainbat interpretazio izan ditzakeela, eta herritar balioa dela onartzea pluraltasun hori eta eragozteari historiaren jabetza gizartearen zati baten esku egotea, gizarte osoaren esku egon beharrean.

Uste dugu, gainera, erakunde politiko eta akademikoek baztertu egin dituztela herritarrak iraganaren ezagutzari buruzko elkarrizketatik, neurri handi batean interes politiko eta unibertsitario jakin batzuen *status quo*a islatzen duen iraganaren bertsio bat objektibotzat eta zientifikotzat ezartzen eta zabaltzen saiatuz. Historia eraikuntza kolektiboa da, eta guk horretan parte hartu nahi dugu, ikuspegi nahitaez kritiko batetik. Horrenbestez, ekonomiaren kontakizun ofizial eta hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten edukiak eskaintzen dira, eta, aldi berean, iraganaren eta haren narratibaren interpretazio plural eta alternatiboetan egiten da elkarlana.

Ekonomiako ikastaroak, berriz, ikasgaia begirada sistemiko batetik aztertzeko premiari erreparatzen dio bereziki aurrean, hau da, ekonomiaren ikuspegi kritiko eta heterodoxoa ematen duen begirada batetik, eta horrek ekonomia beste sistema zabalago baten azpi-sistema moduan ulertzea ahalbidetzen digu, sistema soziala... azken finean, nagusi den kapitalismoa.

Ekonomiaren begirada sistemiko batek eskatzen du, halaber, pertsonak berez *interdependentek* garelara ulertzea, gorputz zaurgarrietan haragituak garez bezala beste pertsona batzuen lanaren premia dugulako bizitzeko. Zaintza lan horiek guztiak ez ditu aintzat hartzen ekonomia konbentzionalak, etxearen barruan gertatzen direlako. Alabaina, nahitaezkoak dira biziraupenerako, ongizaterako eta biztanleriaren ugalketarako, merkataritzako lana, enplegua eta abar bezala... lanaren prekarizazioak hori kontuan hartzea gero eta zailagoa egiten badu ere. Gainera, hori gizarte patriarkalen esparruan gertatzen da, halako moldez non zaintzako lan guztiak (edo ugalketakoak) izan diren, eta izaten jarraitzen duten, funtsean (eta bidegabeki) emakumeek eginak. Maiz bi fronteetan (enplegua eta zaintza) borrokatzearen ondorioz, emakume askok gaur egun "lanegun bikoitza" dei daitekeena daukate.

Asmoa, azken batean, ekonomiak nola funtzionatzen duen ulertzea da, eta horrek nola eragiten dien gure bizitzari eta gure inguruei. Hortik abiatuta, gustuko ez dugun errealitatea eraldatu ahal izango dugu.

Espazio honetatik proposatzen dugun moduko gogoeta ireki, patxadatsu eta erne bat, gaur egungo agertokian, pauso garrantzitsua da premiazkoa den eraldaketa prozesuan.

Teatro del Barrio

# begirada konprometituak

zinema  
dokumentalak

Izenburua: Las mujeres decididas

Tokia, urtea: El Salvador eta Honduras, 2017

Zuzendaritza: Itxaso Díaz, Higinia Garayrekin lankidetzan (irudikatzailea)

Produkzioa: [Mundubat Fundazioa](#)



**Sinopsia.** "Las mujeres decididas" dokumentalak El Salvadorren eta Hondurasen haurdunaldia eteteko eskubidea ukatu zaien emakumeen egoera azaltzen du. Abortua jazartzen, zigortzen eta kriminizatzen da, are 50 urteko espetxe-zigorrekin, haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeentzat. Ez dago salbuespenik agintarientzat, nahiz eta haurdunaldia bortxaketa baten ondorio izan, amarentzat heriotza arriskua ekarri edota fetuak bizitzarekin bateragarriak ez diren malformazioak eduki. Horren aurrean, emakumeen erakundeek osatutako sare sendo bat dago, elkartzeko eta aldarrikatzeko; eskubide urraketa horri aurre egiten diete, eta emakumeen erabakitzeko eskubidearen alde borrokatzen dute. (Itxaso Díaz) <<http://itxasodiaz.com/proyecto/las-mujeres-decididas>>.

Irudiaren profesional biek duo bat osatu dute emakumeen erabakitzeko eskubidearen alde. Horrela, lortu zuten gertakari latzak eta txundigarriak modu original eta artistiko batez kontatzea. Malagako jaialdiaren aurtengo edizioan (21. edizioa) dokumental hau erakutsiko da. Lanak honako problematika garrantza irudikatzen du: abortuaren erabateko debekuak emakumeak erailtzen ditu, batez ere, ahulenak eta txiroenak El Salvadorren eta Hondurasen. (Sandra Beatriz Moreno Sorto) <[www.mundubat.org/festival-de-malaga-projectara-el-documental-las-mujeres-decididas](http://www.mundubat.org/festival-de-malaga-projectara-el-documental-las-mujeres-decididas)>.



Izenburua: La primavera rosa

Tokia, urtea: Espainia, 2017

Zuzendaritza: Mario de la Torre

Produkzioa: Creta Producciones

Iraupena: 20 minutu

**Sinopsia.** "Udaberri arrosa" plataforma askotako serie dokumental globala da, eta munduan LGBTB komunitateak zer-nolako arazo desberdinak dituen biltzen du, bai geografiari zein gaiari dagokienez, herrialde bakoitzaren egoera partikularreko egokituta. 2010. urtean arabiar iraultza demokratikoarekin jazotako gertaerak abiapuntutzat hartuta, lehen atala sortu zen, "Udaberri arrosa baterantz", modu agerian zein ezkutuagoan historia berriki markatu duten matxinaden metafora gisa. Serieak, dokumentalaren formatuan, esparru kultural desberdinetatik helburu komuna duten gizartearen erradiografia egiten du, helburua Giza Eskubideen aldeko borroka izaki, eta baita askatasun sexualari egiten zaion deiarra ere. Lehen atala Tunisian garatu zen osoki; bigarrena, Errusian; hirugarrena, Mexikon; laugarrena, Brasilen, eta, bosgarrena, Espainian. <[www.laprimaverarosa.com](http://www.laprimaverarosa.com)>

argitalpenak

**Izenburua:** Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos "otros"

**Egilea:** Adolfo Albán, Helio Gallardo, Andrea Neira, Eduardo Restrepo eta Catherine Walsh

**Tokia, urtea:** Kolonbia, 2017

**Argitaletxea:** Corporación Universitaria Minuto de Dios - UNIMINUTO



**Sinopsia.** *Liburu honek "bestelako" hezkuntzak eta garapenak ahalbidetzen ditu, hau da, pentsamendu-dibergentziak daudela aitortzen du, eta, konbergentzien bitartez, eztabaidak eraikitzen ditu, garapenari buruzko kritikei eta disidentziei lagunduz. Horiek apurka eratu dira, egungo ekstraktibismo kapitalistaren oldarraren aurka. Halaber, hezkuntzaren ikuspegi latinoamerikarraren ikuspegi batean kokatzen gaitu, kapital-pilaketak eta pribilegio sozialen ugalketak oinarri dituen bizimoduak naturalizazioa ahuldu nahi duen posizionamendua argitzeko. Hori guztia, bestelako etikak eta bizimoduak abian jarriko dituzten ezohiko imajinario teorikoak eta politikak sendotzeko dagoen premia nabarmentzeko helburuarekin (UNIMINUTO).*

**Izenburua:** Gizartearekin konprometitutako unibertsitate bat lortzeko bidean. Ikuspegi hori Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) txertatzeko bide estrategikoak

**Egilea:** Amaia del Río Martínez eta Gema Celorio Díaz (Koord.)

**Lekua, urtea:** Bilbo, 2018

**Argitaletxea:** Hegoa



**Sinopsia.** Argitalpen honetan agertzen den lana proiektu zabalago baten parte den ekimena da. Unibertsitate-esparrura zuzenduta dago, EHUren eta beste hezkuntza- nahiz gizarte-eragileen artean topaketak egon daitezen aurrerapausoak egiteko, horrenbestez, hezkuntza emantzipatzaile bat proposatzeko. Dokumentu hau diziplina askotariko talde baten eztabaidan eta hausnarketan du bere sorrera, 16 pertsonak osatuta (gehienbat unibertsitateko irakasleak, baina baita Unibertsitateko egituraren arduradunak eta kolektibo sozialetako partaideak ere). Bi lan-jardunalditan bildu ziren, EHU Eraldaketa Sozialerako Hezkuntza ikuspegia barneratzeko ideiak eta ekarpenak biltzeko, eta, hezkuntza-erakunde hori eratzen duten pertsonen (administrazioko eta zerbitzuetako langileak, ikasleak eta bertako irakasle ikerlariak) ahalduz eraginez, eraldaketa posible dela uste izanik, horren itxaropena hedatzeko.

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren zentzua azaltzen duen marko teoriko laburra egiten da, eta, hortik abiatuta, zazpi ildo estrategiko deskribatzen ditu, orientazio gisa, pentsamendu kritikoarekin konprometitu dagoen Unibertsitaterantz aurrera egitea ahalbidetuko dituztenak, hots, justizia sozialarekin eta ekitatearekin bat egingo duena.

## erakundeak

**Izen Kolektiboa:** Uni-Digna. Ongizate komunaren zerbitzura eta sozialki konprometituta dagoen unibertsitate baten alde

**Eragin-esparrua:** Espainiako estatua

**Webgunea:** [www.unidigna.org](http://www.unidigna.org)

**Uni-Digna**

Por una universidad al servicio  
del bien común  
y comprometida socialmente



**Borroka idealak.** *Espainiako Estatuko unibertsitate publikoko ezagutza-espezialitate askotako irakasleek osatutako kolektiboa da. Bildu dira, unibertsitate-irakasleen ebaluazio- eta egiaztatze-sistema ulergarria, zentzuzkoa eta bidezkoa izan dadin. Hezkuntza Ministerioak eta ANECAk (unibertsitate-irakasleen meritoak ebaluatzen dituen kanpoko agentzia) inposatutako ikerketa-jarduerako egiaztatze- eta ebaluazio-abusuzko baldintzen aurka egiten dute, horiek unibertsitate-irakasleek irakaskuntzari modu egonkorrean eta arduraz handiz ekin diezaioten are gehiago zailtzen baitute, lan goraipagarria egiten ari diren bitartean, murrizketa-politika neoliberalen eta Goi mailako Hezkuntzaren eta I+Gren prekaritatearen erdian. (Portal web Uni-Digna).*



Education International  
Internationale de l'Éducation  
Internacional de la Educación  
Bildungsinternationale

**Izen Kolektiboa:** Internacional de la Educación

**Eragin-esparrua:** Mundu osokoa

**Webgunea:** [www.ei-ie.org/spa](http://www.ei-ie.org/spa)

**Borroka idealak.** *Internacional de la Educación (IE) nazioarteko hezkuntza-sindikatuaren federazio bat da. Hezkuntza arloko 30.000.000 irakasle eta langile ordezkaten ditu. 400 erakundek baino gehiagok osatzen dute, munduko 177 herrialdeetako eskualde desberdinetakoak, haur hezkuntzatik hasita, unibertsitateraino. Hezkuntzako irakasle eta langile guztiak ordezkaten dituen Nazioarteko Federazio bakarra da, langileon eta ikaslearen eskubideak defendatzeko xedearekin. Pertsona guztien eskura dagoen kalitatezko hezkuntza publikoa defendatzen dugu. Erakunde sindikal eta demokratikoan egon daitezen laguntzen dugu, elkartasuna eta lankidetzaren sustatzen ditugu, eta hezkuntza eremuetan zein gizartearen bazterketaren aurka borrokatzen dugu.*

*Erakundearen helburuen artean nabarmentzen da mundu osoko gizakien hezkuntzarako eskubidea, bazterketarik gabe, babesa emanez hezkuntza-sistemi eta erakunde akademiko nahiz kulturaleri (irekiak, publikoak eta behar bezala arautuak, zeinen xede nagusiak honakoak diren: gizartearen garapen demokratikoa, soziala, kulturala eta ekonomikoa, eta herritar guztiak gizartearen modu aktiboan eta erantzukizunez jokatu dezaten prestatzea). (Internacional de la Educación webgunea).*

ezinbesteko agenda



**Ekitaldia:** Garapenari buruzko ikasketen nazioarteko IV. Kongresua: "Lankidetzari buruzko ikerketa globalizazioaren mugen aurrean"

**Deialdia:** REEDS eta Andaluziako Loyola Unibertsitatea, horren Garapenerako Institutuaren bidez, Garapenerako eta Lankidetzarako ETEA Fundazioa

**Lekua eta eguna:** Paris, Frantzia. 2018ko abenduaren 12-14

**Informazio gehiago:** <http://reedes.org/congresos-internacionales-de-estudios-del-desarrollo>

*Ekitaldi honetan aztertuko dira zer-nolako gaitasuna eta bideak dituen ikerketak, garapenari buruzko ikasketen arloan, globalizazioaren mugei aurre egiteko, eta horren problematika zabala (gobernantza globalaren gabeziak, desberdinkerien hazkundera, klima-aldaketa, ingurumenaren suntsipena, giza-mugikortasuna...), jasangarritasuna, bizikidetzeta eta bizitza bera (berau ezagutzen dugun moduan) mehatxatuta dauden testuinguru batean. Hori abiapuntu, halaber, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriaren Helburuak aztertuko dira, eta baita horiek inplementatzeko nahiz tokian ezartzeko erronkak ere.*

*Kongresu honen hamalau ildo tematikoetariko batek Herritartasun globalerako hezkuntza jorratuko du. Ildo horren asmoa da topaketarako foroa izatea, ideiak elkarbanatzeko eta eztabaidatzeko, horrenbestez, oraingo ikerketa nahiz esperientziak biltzeko, bai ikasgelan bai kanpoan, Hezkuntza eta gaitasunen giza garapen jasangarriaren arteko loturari buruz (Antolakuntza-batzordea).*



**Ekitaldia:** Emakumeen Mundu Martxako Nazioarteko XI. topaketa

**Deialdia:** Emakumeen Mundu Martxa

**Lekua eta eguna:** Bilbo, Euskal Herria. 2018ko urriaren 22tik 28ra

**Informazio gehiago:** [www.emakumeenmundumartxa.eus](http://www.emakumeenmundumartxa.eus)

*"Batu Indarrak, Urrutira Goaz. Construyamos soberanía sobre nuestro cuerpos y territorios" lelopean egingo diogu harrera Emakumeen Mundu Martxako Nazioarteko XI. topaketari, hemen, Euskal Herrian. XI. topaketa urriaren 22tik 28ra egingo da, eta Bilbo izango du egoitza. Aste honetan, 40 herrialdeetatik etorritako 130 emakume baino gehiago izango ditugu gurekin, ordezkariak eta elkartutako erakundeak kontuan hartuta.*

*Nazioarteko topaketak berezko agenda dauka; hori horrela, urriaren 23tik 26ra, herrialde parte-hartzaileetako elkartutako erakundeen ordezkariak Bilboko Bizkaia Aretoan bilduko dira. Testuinguru globalari eta horrek emakumeen egoeran duen eraginari buruz hausnartuko dute, eta Nazioarteko V. Ekintza antolatuko dute. Azkena 2015. urtean izan zen; ziurrenik gogoan izango duzue: karabana feminista batek Euskal Herri osoa zeharkatu zuen. Hala, bada, hurrengo ekintza bi urte barru izango da, 2020. urtean.*

*Nazioarteko topaketaren esparruan, Euskal Herrian gure "berezko" eguna antolatzen ari gara, eta Feministon Herria izendatu dugu. Urriaren 27an, larunbatean, espazio ireki bat sortuko dugu, hemen, Bilboko Areatzan ([Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa ekimenaren webgunea](http://www.emakumeenmundumartxa.eus)).*

## matxino artean en rebeldía

### 68ko maiatza. 50 urte eta gero!

68ko maiatzeko matxinaden oroimenez, ilustrazio hau orduko afixa ezagun batean oinarrituta dago, non emakumezko batek orduko galtzada-harri paristar bat botatzen duen. Ondean, beste profil batzuk erakusten dira, gaur egun ere, oraindik bizi-bizi dauden borrokek irudikatzen dituztenak.



Hago dibujo, pintura e ilustración a modo de complemento necesario de las demás actividades del día: estudios, activismos, trabajos... Estudié biología, y ahora soy librera de Louise Michel liburuak, librería feminista y crítica de Bilbao. He participado en varias exposiciones, con el colectivo *Mundo Imaginario*, *Artestura feminista* y otras de carácter más privado. Anualmente, y desde hace 4 años, publico un calendario ilustrado, he colaborado en algunos relatos, también en los inicios de la revista *Pikara*, y recientemente he realizado las ilustraciones del libro *Chiribitas* (Libros en Acción, 2018).

Mi obra es muy orgánica, dibujo "bichas, humanas y otras bestias salvajes" me gusta jugar con las proporciones simbólicas, entre cuerpos de humanas y otras especies del reino animal, vegetal o fungi, normalmente al desnudo. Estableciendo relaciones a menudo imposibles, pero asumibles, eso sí, fuera de una óptica androcéntrica, heteropatriarcal y capitalista. Valoro mucho el uso de la ilustración y el arte en general como herramienta de transformación, lucha y denuncia... Creo, como dice Lidia Yuknavitch que "Dos cosas siempre han reventado desde abajo la hegemonía: el arte y los cuerpos".

Cristina Saéz Morquecho